



Urteko eta hamarkadako azkena

%30eko
deskontua
 eguzkitako betaurreko
GUZTIETAN

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
 Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

50 € edo gehiagoko PVP-ko eguzkitako betaurrekoetan aplikatzekoa.
 Galdetu optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezin da beste eskaintzekin batu.

www.multiópticas.com   

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

Txintxarriko lantaldeak 2020 zorientzua opa dizue

*Hurrengo Txintxarri paperean
urtarrilaren 10ean argitaratuko dugu*

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean: www.txintxarri.eus

factory logistika Soinua & Argiak

Kontzertuak
Antzerkiak
Bertso saioak
Guneetako soinu
eta argi instalazioak
Ekitaldien soinu-zatze
eta argiztapena
Kultur ekitaldien
produzio eta
azpiegitura logistikoa




2020 zorientzua
opa dizuegu!



www.factorysoinua.eus
943 50 44 80
646 277 289
Brunet poligonoa.
Oria etorbidea 8-10. 25 pab.
20160 LASARTE-ORIA



2019 urtea



Urtarrila	4-5
Otsaila	6-7
Martxoa	8-9
Apirila	10-11
Maiatza	12-13
Ekaina	14-16
Uztaila	18-19
Iraila	20-21
Urria	22-25
Azaroa	26-27
Abendua	28-31

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Ezzagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zalkdua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia,
Jose Lanchas.

Informatikoa

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 688 68 35 10
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia



TXINTXARRI

Errege Magoei harrera beroa

Urtarrilaren 5ean iritsi ziren herrira Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoak, urtero legez. Herritar ugari atera ziren kalera iluntzean, hiruen kabalgata gertutik jarraitu eta zaldi gainetik jaurti zituzten goxokiak zorroetan gordetzera. Hori baino lehen, Brigitarren komentuan egon ziren, lasarteoriatar gazteenen eskutizak jaso eta gurariak entzuten. Pajeeek gauza bera egin zuten, Okendo plazan. Kabalgata bukatzerakoan, udaletxe berriko balkoira atera ziren Ekialde Urrunetik etorritako hiru protagonistak. Herritarrek agurtu eta gutunak irakurri zituzten, giro hotza goxatuz.



TXINTXARRI

Gazteak eta memoria hizpide

Bizikidetza Lantzen jardunaldien azken saioa egin zuten urtarrilaren 30ean. Bakegintza alorreko bi aditu ekarri zituzten Mirentxura. Batetik, Irene Gantxegi Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Bakegintza teknikari ohia; bestetik, Iker Uson gizarte langilea eta Lasarte-Oriako Bizikidetza Mahaiko koordinatzaile ohia. Gazteak eta memoria izan zituzten hizpide.



TXINTXARRI

Presoen sormen lanak, ipuin

Euskal presoen sormen lanak musika eta ipuin bilakatu zituzten IX. Errezitaldian parte hartu zuten artistek. Jabi Gallaga, Ibon Fernandez Iradi, Aitzol Iriondo, Itziar Moreno, Iratxe Sorzabal, Sara Majarenas, Mikel Antza eta Iurgi Garitagoitiak askatu zuten irudimena Lasarte-Oriako Presoen Lagunak elkarteak antolatutako ekitaldian. Makulu Ken taldea, Unai Muñoa bertsolaria eta Xumela abesbatza izan ziren Manuel Lekuona Kultur Etxeko oholtzara igo ziren artistetako batzuk. Beste herritar askok ere parte hartu zuten, presoen sormen lanei forma ematen.



TXINTXARRI

Agur, 55 urteren ondoren

Urtarrila bukatzeaz zela ireki zituen ateak azkeneko Echarri argazkilaritza dendak. Erretiroa hartu dute Juan Estebanek eta Margarik; festa txiki batekin agurtu zituzten bezero eta lagunak. Bizitza osoa dendari eman ostean, eskerrak emateko baliatu zuten azken eguna. Jende ugari bildu zen azken egunean agur esateko antolatu zuten *lunch*-era.

Danbor hotsak herriko ikastetxeetan

Beti Erreala danborradak Mitxelo Olaizola herritarra omendu zuen; 37 urtez aritu da tresnatzain Realean

Txintxarri

Sukaldariz josita zeuden ostiral arratsaldean herriko ikastetxeak. Mantal eta txano zuriak; galtza urdinak; kupel itxurako danborrak; eta, instrumentu horiek gogor astintzeko, makilak

eskuetan. *Donostiako Martxa, Iriyarena, Tatiago* eta beste hainbat pieza jo zituzten guraso eta lagunuen aurrean. Komeriak izan zituzten kazetariak areto eta anfiteatroetara sartzeko, ikusle mordoak baitzeuden.

Urtarrilaren 20an, igandez, hainbat lasarteoriatarrek parte hartu zuten Donostiako danborradetan. Beti Erreala elkarteak Mitxelo Olaizola omendu zuen; herritarrek urte mordo egin dituzten Realeko tresnatzain lanetan, erretiroa hartu arte. Inigo Uriarte danbor nagusiak txapela eta zapia jarri zizkion Olaizolari. Oso eskertuta jaso zuen aitortza Olaizolak. Danborradako hainbat kidek 2002-2003 denboraldiko argazki bat oparitu zioten.



Garaikoetxea Landaberriko txikiak, danborrak astintzen. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Lokatza, euria...eta atletismoa

Hassan Chanik eta Irene Sanchez-Escribanok irabazi zuten Nazioarteko Krosaren 64. edizioa. Bi horiek izan ziren garaile nagusiak, baina ez bakarrik: urtarilaren 27ko goiz euritsu eta haizetsu hartan Hipodromoko ibilbide lokaztuan lasterka egin zuten kirolari guztiena ere izan zen garaipena. Lasarteoriatarrik ere egon zen proba nagusietan: Jon Presa, Raul Gomez Margallo eta herrian bizi den hernaniar Mari Carmen Olaso. LOKE kirol elkarteko atletismo saileko hainbat gaztetxo ere animatu ziren. 2020ra begira, data aldatzea erabaki dute antolatzaileek; azaro hasieran egingo dute.

Tomas Ruti Parrak, 36 urte Euskadiko Orkestra Sinfonikoan

Erretiroa hartu zuen fagot joleak. EOS orkestraren sorreratik izan zen bertako kide, 1982. urtetik

Txintxarri

"Lore sorta bat eman zidaten eta negarrez hasi nintzen. Baita orkestra erdia ere. Hunkigarria izan zen oso". Horrela gogoratu zuen Tomas Ruti Parra herritarrak Euskadiko Orkestra Sinfonikoa utzi zueneko, 36 urtez aritu eta gero. Fagota jotzen du.

Austrian eta Alemanian eskaini zuen azken bira; orkestrarekin egindako lehenengoa herrialde horietan izan zen. Vivaldiren fagoterako kontzertu baten diskoa entzun eta orduan "maitemindu" zen instrumentu horretaz.



Tomas Ruti Parra. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Urtea jai giroan bukatzen

Ehunka lasarteoriatarrek parte hartu zuten San Silvestre lasterketaren laugarren edizioan. Giro ederrean bukatu zuten urtea, mozorrotuta, eta sei kilometroko ibilbidea –laukoa, ipar martxalarien kasuan– korrika edo patinatzen egiten. TXINTXARRI aldizkariak 25 urte bete zituela-eta, antolatzaileek komunikabidea omentzea erabaki zuten. Ohi bezala, lasterketari ekin aurretik beroketa saioak egin zituzten kirolariak Okendo plazan. Sariak banatu zituzten bukaeran: mozorro orijinalena, parte-hartzaile beteteranoena, ongien mozorrotuta zihoan kuadrilla, eta abar.



TXINTXARRI

Baloia geldirik ez Eguberrietan

Eguzki Areto Futbolak antolatuta, herriko hainbat gaztetxok gozatu zuten areto-futbolaz Eguberrietako oporraldian. Michelingo kirol gunean jokatu zituzten partidak: kantxan eta pilotalekuan. Benjamin, alebin eta infantil kategorietako taldeak aritu ziren nor baino nor gehiago. Txapeldun izan ala ez, gol gehiago sartu edo gutxiago, gozatu ederra hartu zuten denek.



SAGARBERRITU

SAGARDO BOTILEN BERRERABILPENA BETERRI-BURUNTZAN

1

Sagardo egunetako botilak kaxetan jaso

2

Garbiguneko kaxa metatuak garbiketa enpresara eraman garbitzera

3

Botilak berrerabiltzeko merkaturatu

Eguberrietan erantzukizunez jokatu

Botilak berrerabiltzeko aukera baliatu. Eraman itzazu Garbigunera

ONARTU ERRONKA!

Sustatzaileak



euskal sagardoa
Sida natural del País Vasco



GIPUZKOAKO SAGARDOOILEN ELSARTIA
ASOCIACIÓN DE SIDRA NATURAL DE GIPUZKOA



sanmarkos
Mankomunitatea



BeterriErrotuz




Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ORAIN GIPUZKOA



BETERRI-BURUNTZA UDALAK



TXINTXARRI

Txintxarri-ren webgune berria

Otsailaren 18an ongietorria egin zion Txintxarri-k atari digital berriari. Barrutik eta kanpotik eraberritua, atal, eduki eta egituraketa moldatu zituen, hurrengo hilabeteotan erakutsi bezala. Gainera, sakelako telefonoetan eta tabletetan egoki ikusteko prestatu zuten.



TXINTXARRI

Itsaspeko zinema kultur etxean

Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloak zur eta lur utzi zituen kultur etxera gerturatu ziren lasarteoriatarak. Proiektatu zuten dokumentaletako bat izan zen *Hondar2050*, Cesare maglioni italiarrarena. Horrez gain, 2018ko zikloko argazki irabazleak ikusgai jarri zituzten kultur etxeko kafetegian.

Haurrak eta helduak, santu eskean, makilak astinduz

Lasarte-Oriako kaleetan barrena ibili ziren Landaberriko kideak eta herriko hainbat elkarte, Santa Ageda bezperan

Txintxarri

Herritarrek oles egin zuten Santa Ageda bezperan. Eguraldi ona lagun, Lasarte-Oriako kaleetan barrena ibili ziren, egurrezko makilak eskuan eta egun horretan abestu ohi diren koplak ahoan.

Landaberri ikastetxeko ikasle zaharrenek Okendo plazan egin zuten geldialdia; txikienek, berriz, Ama Brigitarren komentuan. Hainbat gurasok egin zuten ibilbidea euren umekin batera.

Goizean, haurren txanda; arratsaldean, aldiz, helduena. Xumela koruko kideak Okendotik abiatu ziren, eta hainbat geldialdi egin herrian: Ama Brigitarren komentuan, esate baterako. Erketz EDTko kideek Santxo tabernan ekin zioten makilak astintzeari; iluntzera arte aritu ziren santu eskean. Zabaletan ere eztaiaz sano dabiltzala erakutsi zuten auzoan eta baserrietan zehar, Otegi sagardotegira afaltzera joan aurretik.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Gaitzak uxatu dituzte Euskal Inauteriek

Eguraldi ezin hobe eta giro aparta lagun, ospatu zituzten euskal jaiak, Ttakun KEK eta hainbat eragilek antolatuta. Ohikoari eutsi, eta berritasunak barneratu zituzten. Hala, txantxo guztiak elkarrekin irten ziren Zubietatik eta Sugarbiro pertsonaia gehitu zuten, xomorroak purifikatzen dituzten sugarrak irudikatzen dituena. Aldaerak aldaera, emaitza bera izan zen: mamoxarroen laguntzaz Kaxkamalo bihurria erre eta gaitzak urtebetez aldentuta.



TXINTXARRI



Gogotik astindu zituzten makilak ikastetxeetako haurrek. TXINTXARRI



Semblante Rocieroko kideak. TXINTXARRI

Semblante Rocierok, mende laurdena

Andaluzia Egun berezia izan da aurtengoa Semblante Andaluz elkartearentzat. Otsailaren 28an ohorezko ardoarekin topa egin zuten iluntzean, eta asteburura aurreratu zituzten beste ekimenak. Igandeko bazkarian, Semblante Rociero koruaren mende laurdena ere ospatu zuten, espreski konposatutako kanta aurkeztuta.

Literatura eta bertsolaritza

Literatur Txokoak antolatuta, bosgarren afari literarioa egin zuten Xirimiri elkarteak. Literatura eta bertsolaritza uztartzen dituen saioan, Ane Labaka, Uxue Alberdi eta Maialen Lujanbio bertsolariek Oier Guillan idazleak jarritako gaiekin asmatu behar izan zituzten koplak. Elkarte bete zuten lagunek, bapo afaldu eta lehertu arte barre egin zuten.



TXINTXARRI



GuraSOSen deialdi bat. TXINTXARRI

Errauste plantaren aurkakotasunari eusten

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2035. urtea arteko Hondakin Kudeaketa Plana onartzeko zuela, GuraSOSek Hitzartu parte hartze prozesua aintzat hartzeko eskatu zion. Herritarrak, berriz, errauste planta ixteko presio sozialari eutsi eta protesta ekintzak egitera deitu zituen.

Zaintzaileak greban, lan baldintza hobekitzeko

Atsokabarreko langileek bat egin zuten eskualdeko protesta ekintzekin

Txintxarri

Ratioak eta soldata taulak hobetzeko borrokan murgilduta, hemeretzi eguneko grebari ekin zioten Atsokabarreko langileek otsailaren 20an. Azaroan hasi zituzten lanuzteak eta Martxoaren 8aren ardatz bat zaintza zela baliatuta, eskualdean antolatutako protestekin bat egin zuten. TXINTXARRI-k egindako elkarrizketan Esti Amantegi zaintzaileak aurreikusi zuen gatazkak luzera jo zezakeela. "Patronalaren gehiengo gizonak dira, eta gu, emakumeak".



Esti Amantegi zaintzailea. TXINTXARRI

Txapelik gabe gelditu ziren Arteaga eta Agirre

Gipuzkoako Bigarren Mailako finala 14-22 galdu zuten Alaitz Badiola eta Usue Zubizarretaren kontra

Txintxarri

Gipuzkoako Federazioak lehenengoz antolatu ditu aurtin emakumeen txapelketak. Bigarren mailako binakako ligaxkan ez zuten areririk izan Ane Arteagak eta Naroa Agirrek; bikote guztiak nagusitasunez garaitu zituzten, baina finalean ez zuten eroso jokatu. Nahiz eta norgehiagoka parekatua izan Alaitz Badiolak eta Usue Zubizarretak irabazi zuten. "Urduritasunak eragina izan du, gure hutsegiteengatik galdu dugu", kontatu zion Arteagak berak TXINTXARRI-ri.



Ane Arteaga pilotaria. TXINTXARRI

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

Goza ezazue jai hauetan
Urte berri on!

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 info@antza.eus
www.antza.eus

Olatu morea herrian, Martxoaren 8an

Kalera ateraz ziren Lasarte-Oriako emakumeak. Gizartean, lan munduan eta bizitzan daukaten garrantzia aldarrikatu eta ikusarazi zuten. M8ko Asanbladako kideek makina bat ekintza antolatu zituzten. Udalak eguerdian deitutako elkarretaratzerara ere joan ziren; plaza bete zuten

Txintxarri

Goizeko hamarrak. Bulegoko atea ireki, eskailerak igo, eta ezohiko giroa. Ezohiko sentsazioa. Zerbait (norbait, hobe esanda) berezia faltako balitz bezala. Pertsona bakarra ez; pertsona asko. Ttakun Kultur Elkartean (eta TXINTXARRI aldizkarian) lan egiten duten emakumeek bat egin zuten Martxoaren 8ko grebarekin, beste lasarteoriatar askok bezala. Gero eta ozenago entzuten da mobilizazioaren oihartzuna, gero eta ozenago berdintasun eta parekidetasun aldarriak.

Lasarte-Oriako M8ko Asanbladak makina bat ekintza egin zituen. Esate baterako, karabana feminista. Hipodromotik abiatu ziren oinez, bizikletan zein autoan zihozten ehunka emakume. Aldarrikapen afixak zeramatzen eskuetan, more kolorekoak, zapi eta banderak bezala. Okendon bukatu eta udalak deitutako elkarretaratzearekin bat egin zuten han. Kontzentratu ostean, martxan jarri ziren berriro ere ehunka emakume. Kalejira egin zuten erdigunean barrena.

Oriarte instituturara joan ziren lehenengo. Bertako ikasleek salatu zituzten ikasgeletan jasan behar izaten dituzten eraso matxistak:



Ehunka emakumeek parte hartu zuten Martxoaren 8ko greban. TXINTXARRI

"Nazkatuta gaude eskatu ez ditugun piropoak jasotzeaz, nazkatuta gure gorputzen jabe ez sentitzeaz". Emakumeek lan munduan pairatu behar duten prekarietatea, soldata baxuagoak, baldintzak eta beste hamaika errealitate bidegabe ere zabaldu zituzten kalejiran parte hartu zutenek. Horretarako, Lanbidek Iñigo de Loyola kalean daukan bulego parera joan ziren. Maialen Aranburuk eta Maider Izagirrek hitz egin zuten han; ELA eta LAB sindikatuetan egiten dute lan, hurrenez hurren.

Atsotokarren egin zuten hirugarren geldialdia, adinekoen egoitzaren parean; langile ugari bat egin zuten protesta ekitaldi horrekin. Handik Kale Nagusira jaitsi, eta ordu erdiko eserialdia egin zuten, aldarrikapen eta protesta oihu artean. Okendon bazkaldu zuten, eta arratsalderako indarrak hartu. Mosaikoa egin eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako hainbat kidek *performance* bat eskaini zuten arratsaldean. Gero Donostiara joan ziren, manifestazio erraldoian parte hartuz.



TXINTXARRI

Herriko toponimia, sarean

Toponimiak inguru bati buruzko informazio osoa du; historia, kultura... Ondare hori kontserbatzeko, Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak herriko toponimia biltzen duen ikerketa argitaratu zuen, eta mapa batean jarri ikusgai, sarean: <http://toponimia.lasarte-oria.eus>. Ikermap enpresa arduratu zen zeregin horretaz.



TXINTXARRI

Iñigo Urrutiarekin solasean

Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok gonbidatuta, Iñigo Urrutia adituarekin hitz egiteko aukera izan zuten herritarrek martxo amaieran, legebiltzarraren egitasmo bati buruz: autogobernua berritzeko testu juridiko bat osatzeari buruz, hain zuzen. Zeregin horretarako izendatutako bost adituetako bat da Urrutia.

Antzerkia, kaleetara


Antzerkiaren Nazioarteko Egunaren harira, topaketak antolatu zituen Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak. Talde bakoitzak rol bat hartu, eta herriko kaleetan barrena ibili ziren, bazterrek alaitzen eta antzerkia egitearen onurak lau haizetara zabaltzen. Desfilea egin zuten aurrena, eta Okendo plazara joan gero; bertan eskaini zuten emanaldi nagusia, lasarteoriatarren aurrean.



TXINTXARRI

Bartzelonako maratoia jokatu zuen Tomax Arrutik, bigarren

Bigarren parte hartu zuen Tomax Arruti herritarrek Bartzelonako maratoian, martxo erdialdean. Aurreneko alditik 11 urtera animatu zen berriro. Kataluniako egoera gertutik ikusteko ere baliatu zuen lasterketa, beste herrialde batzuetan egin moduan. "Handia da aldarrikapen giroa", azpimarratu zuen lasarteoriatarrek, TXINTXARRI eskainitako elkarriketan.



Arruti, Bartzelonan. T. ARRUTI



Martxoari ongi-etorria, mozorrotuta

Inauterietako egun handia, larunbata, martxoaren 2a izan zen. Fikziozko pertsonaiez mozorrotuta irten ziren kalera lasarteoriatar asko, eguraldi ezin hobea lagun. Bezperan, Euskal Inauteriak ospatu zituzten ikastetxeetan: txantxoak, Miel Otxin eta Ziripot...denak egon ziren. Ttakun KEK *Inahaldunak* ekitaldia ospatu zuen astelehenean, martxoak 4.



TXINTXARRI

'Dantza' filma ezagutzen

Okendo Zinema Taldearen zine forumetako batean, martxoko azkenekoan, Telmo Esnal zuzendariaren *Dantza* filma proiektatu zuten. Esnal bera eta Juan Antonio Urbeltz koreografoa gonbidatu zituzten Manuel Lekuona Kultur Etxera, luzemetraiaren nondik-norakoak kontatu zituzten. Lepo bete zuten aretoa lasarteoriatarrek. Korrika Kulturalaren baitako egitasmoa izan zen hori.



TXINTXARRI

Maite Benitoren erretiroa

Ia lau hamarkada eta gero, Biyak Bat egoitzako ile-apaindegian lan egiteari utzi zion Maite Benito herritarrek martxoan. Pena apur batekin, baina gustura ekin zion bide berriari: "Deskantsatu egin nahi dut, bizitzaz gozatu", zioen. 37 urte horietan "oso-oso gustura" aritu zen bezeroen ilea moztzen eta apaintzen.

Garcia

AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ

Tel: 609 479 478

info@garciabus.com - www.garciabus.com



*Urte berri zoriontsua
izan dezazuela!*

- Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak
- Bestelako zerbitzuak



TXINTXARRI



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Ehunka herritarren 'Klika'

Apirilaren 12an ekarri zuen Korrikak euskararen aldeko aldarria Lasarte-Oriara. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko, Landaberri ikastolako eta Oriarte Institutuko haur eta gazteek ilusioz parte hartu zuten erdialdeko kaleak goizean igaro zituen Korrika Txikian. Metxa piztuta, 15:30 aldera iritsi zen 21. Korrika, eta herriko hainbat eragilek eraman zuten lekukoa Hipodromoko zubitik Errekalderaino: Ttakun Kultur Elkartea, Erketz EDT, Ostadar, Xumela, Sorgin Jaiak... festak Okendo plazan jarraitu zuen.



TXINTXARRI

Usandizagaren lehen ipuin sorta

Aintzane Usandizaga idazle lasarteoriatarak *Kabitu ezina* lehen ipuin bilduma kaleratu zuen. Egunerokotasunean oinarrituta, hainbat egoerek eragindako ezinegona lotura hari duten zortzi kontakizun askeek osatzen dute liburua. Bestalde, Harkaitz Canok Espainiako Kritikaren Saria irabazi zuen *Fakirraren ahotsa* eleberriagatik; Imanol Larzabal abeslariaren bizitzan oinarritua dago.



TXINTXARRI

Udako Txokoetarako ilara luzeak

Arratsaldean zabaldu eta Internet bidez ere egiteko aukera bazen ere, Udako Txokoen izen ematea zabaldu zen egunean, ilara luzeak osatu ziren goizeko lehen orduetik Ttakun Kultur Elkartearen egoitza atarian. HH3tik LH6ra bitarteko gaztetxoei bideratutako aisialdi programan plaza bat ziurtatu nahi zuten denek.

PSE-EE nagusi Espainiako hauteskunde orokorretan

Podemos izan zen bigarrena, nahiz eta botoak galdu. Parte hartzea ia zazpi puntu hazi zen

Txintxarri

Espainiako Kongresurako eta Senatuko hauteskundeak egin ziren apirilaren 28an, eta PSE-EE izan zen boza gehien jaso zituen alderdia, 3.215 botorekin. Bigarren, Podemos, IU eta Equo Berdeak

alderdien koalizioa, 2.048 lortuta. 2016ko lekuak trukaturik, alderdi moreak galdutako ia boza adina irabazi zituzten sozialistek. Gora egin zuten hurrengo hiru alderdiek, EAJ, EH Bildu eta Ciudadanos, hurrenez hurren.

PPk, aldiz, behera egin zuen eta VOXek 213 boza lortu. Ultraeskuinaren mehatxuaren ondorioz, parte hartzea nabarmen hazi zen, ia zazpi puntu: %69,27tik %74,24ra pasata.

Alderdiak maiatzeko udal hauteskundeetarako prestatzen ari zirela egin zen galdeketa. EH Bilduk apirilean aurkeztu zuen bere hautagai zerrenda, Podemos, berriz, Blas de Lezo kalean lokala inauguratu zuen, eta Jesus Zaballosek agintaldiaren uzta jaso zuen dokumentu batean.



Zazpi puntu hazi zen parte hartzea herrian, apirileko hauteskunde orokorretan. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Jaialdia, boluntarioak lortzeko

Erakundearen jarduna ezagutarazi eta boluntarioak erakartzeko jaialdia egin zuen Adinkidek. 2018tik, elkarteko kideak bakardadea pairatzen duten pertsonekin elkartzen dira astero, konpainia egin eta euren bizi kalitatea hobetzeko. Manuel Lekuona kultur etxea 300 bat lagunek bete zuten, eta oholtza gainean aritu ziren Alboka abesbatza, Getariako Musika Banda eta ATLO danborrada.



BELTZAK

Saleta, Europako txapeldunorde

Beltzak ZRT taldeko Alex Saleta errugbi jokalaria lasarteoriatarra txapeldunorde izan zen 18 urtez azpiko Europako Txapelketan, apirilaren 14tik 20ra Kaliningradon (Errusia) jokatu. Georgiaren aurka galdu zuen finala Espainiak, 20-10; partida parekatua izan bazen ere, bi akatsek irabazteko aukera gabe utzi zituzten gorriak.



Bi txirrindulari, helmugaratzen. TXINTXARRI

Inoiz baino txirrindulari gehiago BTT proban

Hauteskundeek Lasarte-Oriako BTT probarekin bat egin zuten apirileko azken igandean, herriko bizitzaren protagonismoa partekatuta. Data mantentzearen alde egin zuten antolatzaileek bozkaketak parte hartzean eragingo ez zuelakoan. Eta asmatu. Izan ere, inoiz baino txirrindulari gehiago izan ziren Antonio Mercero guneko irteeran, zehazki, 510.

Andatzan barrena hiru ibilbide zituzten aukeran partaideek, zailtasunaren arabera: motza, 29 kilometro eta 1.080 metroko desnibelarekin; altua, 38 kilometro eta 1.400 metroko desnibelarekin; eta pro delakoa, 48 kilometro eta 1.700 metroko desnibelarekin. Berrikuntza gisa, aurten, lau kilometroko krono igoera egin zuten Andatzan, 12. eta 16. kilometroen artean neurtua, 384 metroko maldan. Halaber, sailkapenean ere moldaketak egin zituzten. Hala, ohiko emakumezko eta gizonezko bereizketaz gain, familia mota ere izan zen irizpidea.

Lorena Zabalak brontzea lortu zuen izotz hockey mundialean

Espainiako taldea hirugarran izan zen kategorian horretan jokatzeko lehen aldian

Txintxarri

Brontzea kolokatu zuen Lorena Zabala herritarrek 2. mailako A taldeko munduko izotz hockey txapelketan. Dumfriesen (Eskozia) jokaturakoa estreinakoa zuen Espainiako taldeak maila horretan; domina zuten helburu.

Bost partidatan hiru garaipen eta bi porrot erdietsi zituen. Eslovenia eta Mexiko garaitu zituen, baina galdu egin zuen Ipar Korea eta Britainia Handiaren aurka. Lehen partida penaltietan erabaki zen. Bigarrenetan, aldiz, ezin izan zuten intentsitatea mantendu eta 4-1 galdu zuten. Bi porrot horiek sailkapeneko lehen postutik urrundu zuten Espainia, baina Australiaren aurka jokatu zuen azken norgehiagokan, 2-3 gailendu ziren, eta garaipena lortuta, brontzezko domina eskuratu zuten.



Lorena Zabala, partida batean. L.ZABALA

Kopan, txapelunorde

Munduko txapelketa amaitu eta egun gutxira Sumendi taldearekin Kopako finalera sailkatu zen Zabala, Txuri Urdin talde donostiarrari irabazita. Tamalez, txapeldunorde izatearekin konformatu behar izan zuen, Majadahondaren aurka galduta.

Munduko Txapelketa jokatzeko txartela, Nahia Zudaierentzat

Apirilean Madrilan jokaturako Erkidego Arteko absolutu mailako txapelketan emaitza onak lortu zituen Buruntzaldea IKTKo igerilari Nahia Zudairek. Kategoriako bi errekor ondu zituen, 100 eta 400 metro libreak, eta azken proba horretan egindako 5:17,98 markari esker, munduko probarako txartela eskuratu zuen. Gainera, multidisability sailkapenean hirugarren izan zen.



Nahia Zudaire igerilaria. TXINTXARRI

adats
ile-apaindegia
2020 zoriontsua izan dezazuela!!
Geltoki kalea 3
MUGIKORRA: 600 523 988
LASARTE-ORIA

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
2020 zoriontsua izan dezazuela!
· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943 37 17 33 - 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com / anorgatxiki@gmail.com

ANTONIO URRUZOLA
Zorionak eta urte berri on!!
AROSZTEGIA
ZURGINTZA eta EBANISTERIA
Etor zaitez erakusketa ikustera!
Asteasuain poligonoa 3. pabilioia, USURBIL
Tel./Faxa: 943 376415 - Mobila 687 845597

Haur zein heldu, dantzan

Maiatzeko hirugarren asteburua gorritz markatu ohi dute dantzariak. Orduan antolatzen ditu Erketz EDTk Dantzari Eguna eta Dantzari Txiki Eguna; bosgarren eta 31. edizioak izan dira, hurrenez hurren. Eguraldi txarra tarteko Okendotik Loidibarrenera mugitu behar izan bazuten ere, giro ederrean aritu ziren dantzan. Igandean gazteenen txanda izan zen, Michelingo pilotalekuan.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Denboraldiari agur, jai giroan

Festa giroan bukatu zuen denboraldia Ostadar SKTK. Hainbat joko egin eta sariak banatu zituzten arduradunek, Oriarte institutuko patioan. Auzolan saria Jose Zapirainek jaso zuen; kirolari nabarmenarena, Iraia Iparragirrek. Ondoren, jokalarik jatorrenen garaikurrak banatu zituzten kirol elkartearen sail bakoitzeko arduradunek. Hamaiketakoa, Beltzak errugbi eskolako kideen kontu.

Jardunaldi emankorra

Udaletako euskara teknikariak gure herrian bildu ziren beste behin, Udaltop jardunaldietan. *Elkar ulertzetik elkarrekin lan egitera... Ados?* Ielopezan, erakunde eta elkartearen arteko elkarlana eta gobernantza eredu berriak aztertu zituzten. 2018ko azaroan eta abenduan egin zen Euskaraldiaren lehenengo edizioak ere izan zuen bere tartea hizlarien saioetan.



TXINTXARRI

Erromeria Azkorten

Urtero legez, erromeria antolatu zuen Ttakun KEk Azkorten, hilabete hasieran. Hamaiketakoa, dantzaldia, herri kirolak, meza...eta Lasarte-Oriatik zein inguruko herrietatik igotako mendizale ugari, eguraldi ezin hobea lagun. Mateo Coloma eta Izeta III.a aritu ziren harriekin lanean; aizkorekin, berriz, Jesus Mari Mujika eta Ugaitz Mugertza. Joseba Ostolazak aurkeztu zuen ekitaldia.



TXINTXARRI

Sormena errimatzen

Musika, literatura, antzerkia...eta bertsolaritza. Udaberriko bertso saio eder batez gozatu dute herritarrek aurten ere. Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña aritu ziren koplaka kultur etxean, maiatzaren 18an, herriko hainbat artistaren lanek inspiratuta. Maddi Labakak jarri zizkien gaiak. Ttakun Kultur Elkarteak antolatu zuen saioa; lepo bete zen Manuel Lekuona Kultur Etxea.



TXINTXARRI

Aldarriak eta protesta

Bilketa eraginkorra bai, errausketarik ez! lelopean, herritar ugari atera ziren kalera, aldarrikatzera badaudela hondakinak erraustea baino alternatiba hobek. Bide batez, salatu zuten Lasarte-Oriako birziklapen tasa "baxuak" dela, eta herritar bakoitzak 228 errefus kilo inguru sortzen dituela urtean. Okendon hasi eta bukatu zuten protesta ekitaldia, erdigunea zeharkatu eta gero.



TXINTXARRI



Parte hartzea bi puntu jaitsi zen maiatzeko udal hauteskundeetan. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Harrera beroa Kopa irabazleei

Granadako Los Carmenes zelaian balentria ederra egin eta Atletico Madril 1-2 irabazi eta gero, Gipuzkoan zehar paseatu zuten Erreginaren Kopa Realeko jokalariek. Lasarte-Orian ere egin zuten geldialdia, bertakoa den Iraia Iparragirrek lasarteoriarrekin parteka zitzen garaikurra eta poza. Futbolariak aitortza ugari jaso ditu ordutik aurrera, han eta hemen.



TXINTXARRI

Senior probintzial taldea, Lauko Finalen lehian berriro ere

Denboraldi bikaina egin zuten Ostadar SKT'ko jokalariek, eta senior probintzial 1. mailako Lauko Finalera sartu, beste urte batez. Ezin izan zuten final handira sailkatu, Antigua Luberriren aurka jokaturako neurketak galdu egin baitzituzten. Horraino iristea meritugarria da ordea, eta gustura geratu zen taldea egindako lanarekin.

Ezusteko handirik ez maiatzeko udal hauteskundeetan

PSE-EEK lortu zituen zinegotzi gehien: zortzi guztira. Parte-hartzea bi puntu jaitsi zen; %65,2koa izan zen

Txintxarri

Ezuste handirik ez zen egon Lasarte-Oriako udal bozetan, eta espero bezala, alderdi sozialista nagusitu zen. Historikoki PSE-EEren gotorlekua izan da udalerrria, eratu zenetik. EH Bilduk gobernatu zuen legealdia kenduta, beti egon da sozialisten esku. PSE-EEK zortzi zinegotzi lortu zituen; EH Bilduk, lau; EAJk hiru; eta, Elkarrekin Podemosek bi. Parte hartzea %65,2koa izan zen, duela lau urte baino bi puntu gutxiago.

Igande gauean garaipena ospatu zuten sozialistek haien egoitzan. Gora egin zuten bototan; 3.886 jaso zituzten (%37,5), 2015ean baino 346 gehiago. Halere, poza ez zen erabatekoa, gehiengo osoa irabazteko itzaropen apur bat baitzuten; Gipuzkoako PSE-EEren inkestek aurreikusten zuten laguntzarik gabe gobernatu ahalgo zutela.

Antzekoa zen egoera EH Bilduko egoitzan, Okendo plazan. Emaizta onak lortu zituen alderdiak, orain lau urtekoen antzekoak. Orduan baino bost boto gehiago lortu zituen: 2.370. Botoen laurdena eskuratuta, bigarren alderdi gisa egonkoritu da. Halere, zapore gazi-gozaorekin bukatu zuten; izan ere, bosgarren zinegotzia dantzan ibili zen gau guztian.

Batzokian, aldiz, giro onean eman zuten gaua. Aurrerapauso nabarmena egin dute jeltzaleek herrian. Orain lau urte baino 121 boto gehiago, guztira 1.549 jaso zituzten (%16,7). Gainera, orain baino zinegotzi bat gehiago dute.

Haatik, Elkarrekin Podemos eta PP izan dira galtzaile nabarmenak. Lehenak 510 boto galdu zituen, eta bi zinegotzi ditu. Bigarrenak ez zuen ordezkariarik lortu, bozken %5eko langa gaitzitu ezinda.

Umeentzako Gabonetako Parkera goaz!

BEC-era!

LH3-LH4-LH5-LH6koentzat

Goizeko 9:30etik 18:30ak arte

Bazkaria eta merienda eraman behar da.

Ttakupeneko bazkideak 17 euro ez bazkide 20 euro

Urtarrilaren 3an

Izena emateko: aisia@ttakun.eus 943.371448 edo Ttakunen bulegoan

serigrafiaiosu.com

project

Sanpedroen aurrekariak, motorrak berotzeko

Ekintza ugazoztu zuten lasarteoriarrek sanpedroen aurreko asteetan: kontzertuak, erakustaldiak, jokoak...

Txintxarri

Ekaineko protagonista nagusiak herriko jaiak izan ohi dira, baina horrek ez du esan nahi hilabete horretako agendan ekintza gehiago ez daudenik. Sanpedroen aurretik, hainbat ekintzaz gozatu zuten herritarrek. Scooter Club Euskadik, esate baterako, vespa eta lambretta motor gidarien topaketa antolatu zuen. Ikusgai jarri zituen ibilgailuak Okendo plazan, eta rutaren bat edo beste egin, Lasarte-Oriatik abiatuta.

Alboka abesbatzak emanaldia eskaini zuen Ama Brigitarren komentuan, festen aurrekari gisara. Erketz EDT dantza taldeko kideak, berriz, Okendon bildu ziren, eta errepertorio zabala eskaini ikus-entzuleei.

Biyak Bat egoitzako kideek jokoak eta gimnastika erakustaldia egin zituzten, baita sari ugari banatu ere. Kirol



Alboka abesbatzaren emanaldia. TXINTXARRI

ekitaldiak ere ez ziren falta izan: Jose Martija txapelketaren IV. edizioa antolatu zuen Los Chavales de Martija taldeak. Herriko areto-futbol txapelketako finala, berriz, Patricio Cocktail Bar taldeak irabazi zuen, Insausti Tabernaren aurka.



TXINTXARRI

Denboraldi amaierako erakustaldia eta bazkaria

Landaberi ikastola eta Artzabaletan eraikitzen ari diren erraustegiaren artean 500 metro besterik ez daude. Proiektua lantzen hasi zenetik ikastolako organoek osasunean eragin ditzakeen kalteekiko kezka adierazi zuten, eta hainbat ekintza eraman dituzte aurrera hori jakinarazteko, batez ere eraikitzen hasi zirenetik.

Hori azaleratzeko moduetako bat Landaberi ikastolako Zubietako eraikineko hesian dauden pankartak dira. Ikastolako irakasleek jakitera eman zutenenez, 2017ko azaroaren 30ean Hezkuntza ikuskaritzaren deia jaso zuen Landaberi ikastolak, pankartak kentzeko aginduz.

Hori dela eta, ikastolako 54 irakasleek haien iritzia eman eta ikastolak jarraitutako pausoen berri emanez oharra plazaratu zuten. Udalbatzarrerara ere gerturatu ziren, Jesus Zaballos alkateari aurrez aurre jakinarazteko.



TXINTXARRI

Udal korporazioa, osatua

Ekaineko ezohiko udalbatzarrean egin zuten udal korporazioa eratzeke ezohiko batzarra. Jesus Zaballos sozialistak hartu zuen aginte-makila berriro ere. PSE-EEK beste zazpi zinegotzi ditu; EH Bilduk, lau; EAJK, hiru; eta, Elkarrekin Lasarte-Oria Pudek beste biak. Denera, hamazazpi kide ditu korporazioak.



TXINTXARRI

Elebeltz, berriro martxan

Herriko hainbat gaztek Elebeltz Sorkuntza eta Eztabaida Askerako Topagunea kudeatzeko ardura hartu, eta ekitaldiak antolatzen hasi zen berriro. Ekainean egin zuten berririkiera festa, Lasarte-Oriako zein inguruko herrietako hainbat musikari gonbidatuta. Hori baino lehen, gunearen historia errepasatu zuten.



TXINTXARRI

Rocioko erromeria ospatzen

Semblante Andaluz elkarteko kideek eta hainbat herritarrek Rocioko Ama Birjinaren eguneko ospakizunak egin zituzten ekaineko bigarren asteburuan. Atsobakar auzoko parkean egin zituzten ekintza gehienak, baina erdiguneko kaleetan zehar ere desfileatu zuten igande eguerdian.

Hamabost egun magiko

Kukuka eskolak antzerki eta dantza hamabostaldia ospatu zuen ekainean, urtero legez. Urtean zehar entseatutako antzezlan eta koreografiak erakutsi zizkieten kultur etxea egunero lepo bete zuten familia eta lagunei. Desfile koloretsu bat ere egin zuten herriko kaleetan zehar, emanaldiei heldu aurretik, eguraldi ona lagun, Oaintxe in deu txarangako kideekin batera.



TXINTXARRI

Teresa sorginarekin batera, festa Zabaletan

Ekaina festa giroaren sinonimo izan ohi da Lasarte-Orian. Sanpedroak eta Sorgin Jaiek iritsi aurretik, Zabaleta auzoko festekin berotu zituzten motorrak herritarrek. Duela hilabete batzuk inauguratutako pilotalekua izan zen egitarauko ekintzen bilgune

Txintxarri

Ostiral arratsaldean lehertu zen festa Zabaletan, Teresa sorgina menditik jaitsi eta auzoa beste urte batez hankaz gora jarri zuenean. Antonio Blas plazaren orde, hilabete batzuk lehenago inauguratutako pilotalekua izan zen egitarauko ekintzen bilgune. Aldatu zuten tokia, baina berdin jarraitu zuen ospakizunen esentziak, eta primerako asteburua pasa zuten herritarrek. Kontzertuak, herri kirolak, bertsolarien emanaldia, bazkari eta afariak, dantza, musika...eta goizeko ordu txikietara arte luzatu ziren parrandak.



TXINTXARRI

'Kabitu ezina', Jalgin

Ekain erdialdean zabaldu zituen ateak berriro Jalgi Kafe Antzokiak. Inaugurazioa ospatzeko, hainbat ekintzaz osatutako egitaraua prestatu zuten. Horietako bat izan zen Aintzane Usandizaga idazle lasarteoriatarren *Kabitu ezina* ipuin bildumaren aurkezpena. Herritar ugari gerturatu ziren lagun artean egindako ekitaldira.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Zudairek sei domina Berlinen

Buruntzaldea IKTKo igerilari Nahia Zudairek maila bikaina erakutsi zuen World Para Swim World Series lehiaketan. Zazpi modalitatetan aritu zen zubiatarra, eta hainbat domina kolokatu zituen, marka ugari ontzeaz gain: sei irabazi zituen guztira, eta hiru errekor berri ezarri.



TXINTXARRI

Sanpedroen aurretik, San Joan


San Joan eguneko suaren inguruan elkartu ziren lasarteoriatarrek ekainaren 23an, urteko gauza txarrak erre eta sanpedroei eta udarari ongi-etorri beroa egiteko. Andatza plazan egin zuten ospakizuna, azken urteetan bezala. Erketz, Alboka, Zero Sette eta hainbat herritarrek parte hartu zuten ekintzetan.



Jalgune

Familia eta lagun lasarteoriatarrei,
Eguberri onak opa dizkizuegu eta
2020. urtean zuen ametsak bete
daitezela!

URTE BERRI ON!



Beko kale bidea 1, 2. solairua • LASARTE-ORIA



Sei, bost, lau, hiru, bi, bat...

Sanpedroek eta Sorgin Jaiek festa giroz blaitu zuten herria, ekain amaiera eta uztail hasieran. Ostegunetik astelehenera arte, hamaika ekintzatan parte hartu zuten herritarrek, eta jaiak gogotik ospatu ere bai. Sei hilabete baino ez dira falta berriro hori guztia bizitzeko



Ohi bezala, txupinazoarekin lehertu zen festa giroa Okendo plazan. TXINTXARRI



Herritar ugariak parte hartu zuten Sorgin Jaien bakailao txapelketan. TXINTXARRI



Sorgin Jaien hasiera. TXINTXARRI



Sorgin Jaiak ekainaren 27an hasi ziren, ostegunarekin. TXINTXARRI



Felix Telleriak (ezkerrean) danbor nagusi izateari utzi dio aurten. TXINTXARRI



Azkeneko gauean, suak. TXINTXARRI



Deabru Beltzak taldeak ikuskizun txundigarria eskaini zuen. TXINTXARRI



Bertsolarien emanaldia izan zen Ttakun Kultur Elkarteak festetan antolatutako ekitaldietako bat. TXINTXARRI



Aterpea Merkatari eta Ostalarien elkarteak omendu zuen udalak. TXINTXARRI



Urte berri on!

600 857 586 

www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Gabonetako eskaintzak ditugu!

HARI GABEKO ENTZUNGAILUAK
Apple eta Android-ekin bateragarriak



HARI GABEKO BOZGORAILUA



KIROL ERLOJU ELEKTRIKOA



ZARTAGIN-SORTA



KAFE-MAKINA



Ogia txigortzeko gailua **OPARI**

Labana sorta **OPARI**

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

DANI karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen


- Kabina labeduna
- Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
- Tapizatuen garbiketa



2020 zoriontsua opa dizuegu!



Zirkuitu ibilbidea 12
20160 · LASARTE-ORIA
Tel. 943 37 14 40
Mugikorra: 608 39 18 85
carroceriasdani@carroceriasdani.com
www.carroceriasdani.com



LASARTEARRA KIROL ETA KULTUR ELKARTEA

2020 zoriontsua
opa dizuegu!

Erribera kalea 10, atzealdea
943 36 29 97 - Lasarte-Oria





Larunbata, urtarrilak 4

Txu-Txu trenea ibiliko da kaleetan zehar.

Ordutegia: 11:00etatik-14:00etara eta 17:00etatik-20:00etara.

Bidaia dohainik izango da. Okendo Plazatik irtengo da

Urte Berri On!




Busti Blai ederra egin zuten Sasoeta auzoan. Hainbat kiroletan trebatzeko aukera ere izan zuten, hala nola, areto-futbolean. TXINTXARRI

Milaka barre, algara eta abentura, euskaraz

Haur, zein gazteek bizipen ugari pilatu zituzten Ttakun Kultur elkarteko Udako Txokoetan. Lasarte-Oriako hainbat elkarteren eta erakunderen laguntzaz hamaika ekimen egin ziren. Apar-festan guztiek batera eman zioten amaiera hilabeteari

Txintxarri

Eskulanak, dantzak, ur-jolasak, kirola, irteerak... aspertzeko astirik ez zuten izan Ttakunen Udako Txokoetan ibili ziren haur eta gaztetxoek.

Txikienek denboraren makina izan zuten gaitzat eta milaka abentura bizi izan zituzten: Porrotxen eta Jalgune elkarteko lagunaren bisita jaso zuten; San Ferminetako entzierroa bizi zuten; Atsobakar zahar- egoitzako lagunei hainbat egun alaitu zizkieten jolas eta abestiek eta azken jaialdian prestatutako dantzak erakutsi zizkietan guraso eta senideei Okendo plazan.

Ertainek eta handiek herriko hainbat elkarte eta erakunderen laguntzaz ekimen ugari egin zituzten. Taloak egiten, irrintzia



Porrotx eta Jalguneko lagunekin primeran pasa zuten etxeko txikiak. TXINTXARRI

botatzen, bertsoan, gimnasia erritmikoan errugbian, pilotan edo areto-futbolean, zein antzerkia egiten... ikasi zuten gaztetxoek. Gozatzeo astia ere izan zuten, hala nola, Sasoeta auzoan

egindako Busti blai ekimenean eta herriko denden laguntzaz ginkana bat ere egin zuten. Hilabeteko ekintzei amaiera paregabea emateko, apar-festan jolas egin zuten guztiek.

Mural onena, J. Agirrerena

Guztion Lasarte-Oria 2019 programako muralak margotu eta sariak banatu zituzten. Juncal Agirre donostiarrak jaso zuen lehen saria udal euskaltegian egindako *Hizkuntza* lanagatik. Bigarren eta hirugarren sariak Julian Toquero lasarteoriarrak jaso zituen, *Sorgin jai*a muralagatik eta *Koloretako ametsa* irudiagatik. Epaimahaikideek lanen maila altua nabarmendu zuten.



TXINTXARRI



E. POZO

Azkarrenak erlojupekoan

Kadeteen Espainiako txapelketa jokatu zuten Buruntzazpiko txirindulari Beñat Carbayeda eta Haimar Etxeberriak, Chesten (Valentzia). Erlojupeko proban urrezko domina kolkoratzuten, Haimar Erostarbe eta Haimar Galdosekin laukotea eginez. Bakarkako lasterketan ere ederki aritu ziren. Carbayeda ihesaldian izan zen eta Etxeberria zortzigarren izan zen.




BURUNTZALDEA IKT

Domina eta marka ugari ontzen

Buruntzaldea IKTo igerilariak proba ugari jokatu zituzten: infantil, junior eta absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa eta junior eta absolutu mailako Euskal Herriko txapelketa eta infantil mailako Espainiako txapelketa. Lehen bietan Martin ahizpek domina ugari eskuratu zituzten. Aintzane Sarobek eta Nora Imazek ere lan ederra egin zuten haien mailako txapelketetan. Honez gain, itsasoan ere Trebeak direla erakutsi zuten. Nerea Santosek Ondarroa eta Getariako probetan garaikurrak eskuratu zituen.

Atletak bikain, Euskadikoan

Lasarte-Oriako sei ordezkari izan ziren Durangon egin zen Euskadiko txapelketan. Hiru domina lortu zituzten; urrezko bi eta brontzezko bat. Jauzi eta jaurtiketa probetan abilak direla erakutsi dute beste behin LOKEko Naroa Furundarena eta Mainer Rekondo gazteek urrezko domina eskuratu. Hirugarren izan zen Eneritz Busto 110 m. hesi lasterketan.



N. FURUNDARENA



Hainbat ekintza eginez ospatu zuten Santa Ana eguna. 'Collage' bat egin dugu argazkietako batzuekin. TXINTXARRI

Usadioa eta umorea, Santa Anaren ohorez

Eguraldi atsegina izan ez arren, herritarrek Santa Ana eguneko ospakizunekin bat egin zuten. Okendo plaza askotariko produktuez eta umorez bete zen, eskulangitza azokari eta parodiari esker. Pala txapelketako finala ere jokatu zen; aurretik, gurpildun aulkiekin erakustaldia izan zen

Txintxarri

Eskulangintza azokak eta tabernetako Santa Ana pintxoaren dastaketak eman zien hasiera Santa Ana eguneko ospakizunei. Espero baino artisau gutxiago etorri ziren, antolakuntzarekin ez ziren arazoengatik. Hala ere, askotariko produktuak ikusi eta erosi zituzten herritarrek.

Euritsu esnatu zen eguna. Horrek ez zituen herritarren animoak zapuztu: Santa Ana

ospatzera atera ziren kalera, zapi gorria lepoan. Hamaiketako egin zuten Elizatze plazako arkupeetan. Bertan zeuden Erketz EDTko kideak ere, noiz atertuko zain, Santa Ana karkabara joan eta dantza egiteko.

Arratsaldean, Axular Iparragirrek eta Gari Arteagak jantzi zituzten pala lehiaketako txapelak. Inori irabaztea gustatzen ez zaion modu batean, ordea, Xenki Astiazaranek min hartu

baitzuen. Finala hasi aurretik, Mindara elkarteko jokalariek erakustaldia eskaini zuten, gurpildun aulkietan.

Gauean, 69 urte bete zituen parodia umoretsua ikusi ahal izan zen euri artean. Patxi Zaharra eta Txarra eta Juan Cardos de Bribon y Bribon eseri ziren Marchena epailearen aurrean aurten, eta hark errugabetzat jo bazituen ere, Santa Ana erabaki zuen sutara bidaltzea.

Urtetako geldiunearen ostean, Parapetotik Jalgira

Andatza plazatik Jalgi Kafe Antzokira lekualdatu zituzten Parapetasonik jaialdiaren bosgarren edizioko kontzertuak

Txintxarri

Zeruari begira hasi zuten eguna Parapetasonik jaialdiko bosgarren edizioko antolatzaileek. Lehen erabakia herri bazkaria Andatza plazatik Xirimiri elkartera aldatzea izan zen. Eurria gelditzen ez zela ikusita, eta oholtzaren egoera zela medio, azken unean kontzertuak Jalgira lekualdatzeko erabakia hartu zuten.

Ordubate inguru atzeratu zen jaialdiaren hasiera, baina erantzun bikaina izan zuen. Parapetasonik faltan bota dute musikazaleek. Gipuzkoako txoko guztietatik hurbildu zen jendea Geltoki kaleko kafe antzokira. Parapetasonik jaialdia indartsu itzuli zen. Euskal Herriko Legen Beltza talde mitikoak eta Bartzelonako Bellako taldeak ziren begitik sartzen ziren lehen taldeak, baina Lampr3a, Rodeo



Legen Beltza taldea. TXINTXARRI

eta Overloudek ere zeresana eman zuten.

Parapetasonik jaialdiaren baitan, abuztua amaiera arte Oreka tabernan Begipuntuan argazkilariaren hainbat erretratu ere izan ziren ikusgai.

Jaiek, ez amaierarik

San Pedro jaiak udako ospakizunen atarikoa izan ziren Oria eta Basaundi bailarako bizilagunentzat. Karmengo Amaren eguna eta San Inazio eguna ospatu zituzten egitarau zabalarekin. Haurrentzako tailerrak, Sorgin dantza, puzgarriak, buruhandiak, txapelketak, dantzaldiak... adin guztietako auzotarrek era ezinhobean gozatu zituzten jaiak.



TXINTXARRI

MAITE

Gabon hauetan oparitu gertukoei ongizatea!

Opari-bartelak ditugu zerbizuetan erabiltzeko

ESTETIKA ARETOA

2020 zoriontsua opa dizuegu!

Ordufegi malgva daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mota ezberdinetako depilazioak
- Befeileen tindatzea eta *lifting*-a...

NOAOA
BIDAIAK

ESLOVENIA & ISTRIA

NORUEGAKO FIORDOAK
(itsas bidaia)

2020 zoriontsua opa dizuegu!

TALDE BIDAIAK
Denboraldi aurrerapena

T.: 943 373 613
info@noaoa.eus

Landaberri aldaparen afera, ikasturtea hasteko

Landaberriko ikasleen irisgarritasun eta segurtasun eza salatu zuten ikastetxeko ordezkariak udalbatzarrean eta irtenbidea eskatu zuten. Udalak Donostiako Udalarari egotzi zion errua. EH Bilduk eta EAJK egoeraren kudeaketari kritika egin zioten

Txintxarri

Landaberriko zenbait ikaslerentzat uste baino mugituagoa izan zen ikasturte berriaren hasiera. Zubietako eraikineri igotzeko aldaparen eta eskailaren egoera txarra dela eta –horrela ziurtatzen du Lasarte-Oriako Udalak duen txosten geologiko batek–, horietarako sarbidea debekatu zuen udalak. Eskaileretatik ezin du inork igaro, eta aldapatik, berriz, oinezkoentzako tarte bat bereizi duten arren, autobusek zein autoek galarazita dute sarbidea. Hori dela eta, autobusak aldapa hasieran, errepidean, uzten ditu gazteak. Horregatik, segurtasuna bermatzeko asmoz, Arrapide pasealekuan trafikoa erregulatzea eskatu zuen Landaberriko Guraso Elkarteak iraileko ohiko udalbatzarrean.



Landaberriko aldapa, itxita. TXINTXARRI

Galdera eta erreguen tartean atera zuten gaia EAJ eta EH Bildu alderdietako ordezkariak, eta publikoan bildutako eskolako ordezkari ezberdinek ere, ikasturtea hasteko bezperan, egoerarekin kezkatuta,

irtenbideak eskatu zizkieten ordezkari politiko guztiei.

Jesus Zaballos alkateak azaldu zien, ordea, Lasarte-Oriako udaltzaingorik ezin daitekeela bertara joan trafikoa erregulatzea. Lur eremu hori, Donostiako Udalarena da, eta "bertako udaltzaingoen ardura da trafiko lanak egitera joatea". Donostiako Udalak, ordea, "pertsonek ez duela" erantzun zion eskaerari, eta hor korapilatu da arazoa.

EH Bilduk, udalak arazoaren aurrean izan zuten "kudeaketa negargarria" salatu zuen eta EAJK argi azaldu zuen arazo hau "hobeto" bideratu zitekeela.

Epe laburreko irtenbide gisa, pasealekuko bi sarreratan hesiak jarri eta trafikoa zuzentzen egon ziren herriko ordezkari politikoak. Donostiako Udalarari "presioa" egiteko eskaera egin zuten gurasoek.

Zudaire, Munduko txapelketako finalean markak ontzen

Ainhoa Martinek lau domina eskuratu zituen abuztu hasieran jokatu zen Espainiako txapelketan

Txintxarri

Buruntzaldea IKTKo Nahia Zudairek Londreseko Munduko txapelketan bost probatan parte hartu zuen eta 100 m. tximeletako finalean egon zen lehian. Bere marka ondu eta Espainiako errekor berria ezarri zuen.

Ainhoa Martinek aldiz, Espainiako absolutu eta junior txapelketan parte hartu zuen. Urrezko domina, zilarrezko bi eta brontzezko bat eskuratu zituen,



Nahia Zudaire lehian. BURUNTZALDEA IKT

baita Euskadiko bi errekor ondu ere.

Arranoak eta zaldunak

Erdi Aroak hartu zuen Lasarte-Oria IV. Xacobeo azokari esker. Herriak ehunka mende egin zituen atzera. Irailaren 20tik 22ra artisauen postuak, musikariak, bufoiak eta hegazti harrapakariak izan ziren herriko kaleetan. Ehundaka lagun izan ziren artisauak eskainitakoak ikusten eta erosten. Ikuskizun ugari ere izan zen.



TXINTXARRI



Ikerlariak laginak hartzen. TXINTXARRI

ToxicoWatch fundazioko kideak laginak hartu zituzten

Zubieta Lantzen elkarteak erraustegiaren isurketen kontrola egiteko ToxicoWatch fundazioko eta Euskal Herriko enpresa bateko ikerlariak kontratatu zituela jakitera eman zuen. Ikerlariak arrautzak, oiloek jaten duten pentsua, lurra, gorostiaren hostoak eta beste landare batzuk, ura... Lagin ugari hartu zituzten lanean hasteko.



TXINTXARRI

Eztanda egin zuen musikak

Donostia Festibaleko kartelean izen handiak zeuden eta bertaratutako ikusle kopuruan argi ikus zitekeen hori. Bi egunetan, guztira, 18.000 lagun inguru izan ziren lau eszenatokietan eskainitako ikuskizunak gozatzera hurbildu zirenak. Jaialdia irekitzeaz Rukula taldea arduratu zen. Hitzik gabeko abestiak egiten dituen baketen arduradun Oihan Agirretxe lasarteoriatarra duen taldeak.

Elebeltz Topagunean, bestalde, Lasarte Festibala antolatu zuten. Herriko talde hasiberriei bozgorailua jarri zien. LOUH, Lapur Gvng, Kingston Sound, Liluraren Kontra eta Kinada igo ziren topaguneko eszenatokira. Jaialdiaren ostean, Lasarte-Oriako udaltzainek Elebeltzeko kide bat identifikatu zuela salatu zuen topaguneari.



A. VEGA

Europako seven txapelketan

Alex Saleta Europako txapelkunorde izan zen errugbiko seven selekzioarekin, Poloniako Gdansk hirian. Maila handiko taldeak izan zituen aurrean eta finalera arte ez zuten partidarik galdu. Saletak partida guztietan jokatu zuen eta Lituania eta Georgiaren aurka lehen zazpikoan atera zen.

Boleibola itzuli da herrira

Ametsa errealitate bihurtu du herriko gazte talde batek: bizpahiru urte eta gero, boleibol taldea sortu dute berriro. Ostadar SKTrekin jarri dira harremanetan, eta kamiseta urdin-beltzak jantzi dituzte aurten. Asier Acuriola da entrenatzailea. Jubenil-senior mailan irekiera tomeoa hasi zuten urrian.



TXINTXARRI



RFEF.ES

Chourraut, Tokiora bidean

Piraguismoko eslamon Munduko txapelketa izan zen Kataluniako La Seu d'Urgell herrian. Maialen Chourraut herritarra finala jokatzeko sailkatzearekin batera, Tokioko 2020 urteko Joko Olimpikoetarako txartela eskuratu zuen. Laugarrenez parte hartuko du herritarrak Joko Olimpikoetan. Ez zuen ordea zorte onik izan finalean; akats batek azken postura eraman zuen, hamargarrenera.



A. ILLARRAMENDI

Herriko atletak probaz proba

Andoni Illaramendi triatleta herritarrak lan ona egin zuen Ironman 70.3 modalitateko Munduko Txapelketan, Nizan (Frantzia). Etxean, berriz, Plazaolako natur bideako maratoiko eta Jose Maria Sarriegi oroituz probako irabazle izan ziren Anebel Eleno eta Raul Gomez Margallo. Aimar Sukunza Gipuzkoako kadete mailako esprint triatloi txapeldun izendatu zuten Zumaiako triatloi proban.

Gautxorientzat gunea

Hirugarren urtez, Lasarte-Oriako Udalak Gautxoria antolatu zuen. Herritar ugari gozatu zuten ekimenaz, kultur etxeko besaulki berrietatik. Demode Quartet taldeak eta Amaia Gonzalez Caballeroren dantza eskolako ikasleek eskaini zituzten emanaldiak. Yolanda jatetxeko kideek ireki zuten lehen solairuko taberna.



TXINTXARRI

Trainerua bai, itsasorik ez

Duela berrogeita hamar urte irabazi zuen, lehenengoz, Kontxako Bandera Lasarte-Oriako 'Lasarte-Michelin' traineruak. Bertan aritu zen herritarrik, baina lasarteoriatar gehiago izan ziren 1973. urteko badiako bigarren garaipenean. Juan Miguel Arteaga (Lasarte-Oria, 1948) eta Jose Luis Lasarte (Lasarte-Oria, 1951) izan ziren horietako bi eta TXINTXARRI-k elkarrizketa egin zien orduko bizipenak jasotzeko.



J.M. ARTEAGA

Hurrengo udara arte

Udako denboraldiari amaiera eman zitzaion Hipodromoan. Ekainetik irailera sari ugari jokatu ziren, Urrezko kopa, horien artean. Azken jardunaldi horretan, Irene Morenok Funny poniarekin irabazi zuen estatu mailako finala, azaroan Abu Dhabin Munduko txapelketako finalean arituko zen. Donostiako sari nagusia, berriz, Mirafloresko markesaren Emin zaldiak irabazi zuen, R. Sousaren gidaritzapean.




TXINTXARRI

Mendi festa baino gehiago

Lasarte-Oria Trail elkarteak mendi martxa antolatu zuen. Egun batzuk lehenago agortu ziren dortsalak. Eguraldia lagun, oinez, korrika, saltoka... nahierara gozatu zuten Buruntza eta Andatza mendiez lasarteoriatarrek. Amaitzean, Okendo plazan hamaiketako goxoa eta edari freskoak zain zituzten.



TXINTXARRI



2020 zoriontsua opa dizuegu!

Kale Nagusia 40
Tel: 943 36 39 64
LASARTE-ORIA

SEMBLANTE ANDALUZ

Gure Rocío-ko Ama Birjinaren kofradiak 2020 zoriontsua opa dizue

Golf plaza 2, Lasarte-Oria - Tel. 943 36 36 99

Festa giroan aritzeko adinik ez dagoenean

Astebete, eta hamaika ekintza Adinekoen Omenezko Astean. Asteburu luzea igaro zuten festa giroan: martxa neurtua, lerroko dantza erakustaldia eta bazkari herrikoia egin zituzten, besteak beste. Urrezko ezteiak egin zituzten bikoteei aitortza ere egin zieten

Txintxarri

Adinekoen Omenezko Astea ospatu zuten, urtero bezala, urriko lehen eta bigarren asteetan. Festa giroak ez dauka adinik.

Zazpi egun, hamaika ekintza. Bandera igotzea izan zen ekintzen zerrendako lehena. Biyak Bat egoitza kanpoaldean jarri zuten bandera, ospakizunei hasiera emateko. Bertara joan ziren hainbat herritar, eta udal gobernuko kide ia guztiak. Zuzeneko ekitaldietan batzuetan gertatzen diren gauzak: mikrofonoak huts egin zien egoitzako kideei, baina hori ez zen oztopo izan jai giroaren hasiera lau haizetara zabaltzeko. "Gora Adinekoen Omenezko Astea!", oihukatu zuten, ilusioz. Tokan, bolan eta igelan jokatu zuten gero jubilatuek, Isla Plazan. Iluntzean, aldiz, kartoiak eskuetan hartu eta zenbakiak ezabatzen aritu ziren, bingoan, egoitzan bertan. Sariak banatu zituzten gero.

Sasoi betean daudela erakutsiz ekin zioten bigarren egunari: gimnastika erakustaldia egin zuten Maialen Chourraut kiroldegian. Hainbat hilabetetan behin eta berriro entseatutako koreografiak erakutsi zizkieten senideei eta lagunei. Kirola goizean, eta kultura arratsaldean: Virginia Imazen *Sex o no sex* clown ikuskizunaz gozatu zuten kultur etxeko auditoriora joan ziren ikus-entzuleek.

Asteburuan ere ekintza bat baino gehiago egin zituzten. Larunbatean, esaterako, martxa neurtua aritu ziren, eta igandean, berriz, goizeko mezaren ostean, Biyak Bat egoitzako koruak emanaldia eskaini zuen kultur etxean. Horren ostean, Amaia Gonzalez Caballero dantza eskolako ikasleek erakustaldia egin zuten.

Indarrak berreskuratzeko, herri bazkaria egin zuten.



Biyak Bat egoitzako bandera igotzarekin hasten da Adinekoen Astea. TXINTXARRI



Gimnastika erakustaldia egiten dute urtero, kiroldegian. TXINTXARRI



Kamiseta berdeak soinean jantzita, ibilbilaldi ederraz gozatu zuten. TXINTXARRI



Urtero legez, aurten ere sardina jateak ez du hutsik egin Sasoetan. TXINTXARRI

Sasoiko festak izan zituzten aurten ere Sasoeta auzoan

Euria egin bazuen ere, jai giro ederrean igaro zituzten Sasoetako bizilagunek auzoko festak

Txintxarri

Urria heltzarekin batera, Sasoeta da festazaleen gunea. Eguraldia lagun izango ez zutela bazirudien ere, euriak etsi egin zion ia azken unera arte. Hura zen Sasoeta Sasoian bizilagun elkarteko presidente Ángel Gonzalezen eskaria txupina piztu ondoren, ateri mantentzea jendea parte hartzera anima zedin. Eta egin zuten. Tantoren bat izan bazen ere, festa giroz blaitu ziren auzotarrak. Zapi urdinak lepoan, kamiseta soinean eta irribarrean ahoan aurre egin zieten zeruko lainoei. Zaparradarik izan bazen,

ekimenena izan zen. Ostiral arratsaldean Mostatxo tabernako Sole Senperena eta Eduardo Alonso senar-emazteak izan ziren festaren metxa pizteko arduradunak. Etxafuego horren ondoren, beste asko izan ziren asteburuan, jarduera askoren atarian. Ez ziren gutxi izan adin guztietarako aukerak: mus eta futbolin txapelketak, zunba erakustaldia, zezensuzkoa, herri bazkaria, patata tortilla lehiaketa, sardina jatea...

Asteburuko hitzordu nagusia, hala ere, helduen danborrada izan zen.



TXINTXARRI

Mugikortasun jasangarriaren alde

Lasarteoriatarrek gogotsu parte hartu zuten mugikortasun asteko ekintzetan. Ez ziren geldirik egon. Eguraldi ezin hobea lagun, bizikleta hartu eta herrian barrena ibiltzera animatu ziren haurrak eta helduak. Okendo plazatik abiatu ziren. Bien bitartean, beste herritar batzuk Okendoko bigarren eskuko azokara joan ziren, bertan salgai zeuden txiringak ikustera eta erostera.



TXINTXARRI

Ernai Lasarte-Oriaren aurkezpena

Ernai Lasarte-Oriako kideek aurkezpen irekia egin zuten Miretxun. Hainbat gazte, EH Bilduko udal ordezkari, eta bestelako herritar bertaratu ziren saio irekira. Osatu duten taldearen sorburuaren berri eman zuten, eta azaldu zuten eskualdeko Ernaiko kideekin harremanetan jarri eta lanketa bat egin ostean osatu dutela antolakundea.



PENTSIONISTEN KOORDINAKUNDEA

Herriko pentsionistak Madrilen

Madrilen deitutako manifestazioan parte hartu zuten herriko 26 pentsionistek. Goizean goiz abiatuta, autobusean egin zuten bidaia, eta Espainia osoko pentsionistekin bat egin zuten Espainiako hiriburuan. Sol plazatik, Diputatuen Kongresu aurrerainoko ibilbidea eginda, Espainiako jarduneko gobernuari pentsio duinak bermatzeko eskaera egin zieten.

Euririk gabe, temperatura onarekin igaro zen krosa

Patinatzaileak izan ziren irteerako marra zeharkatzen lehenak. Horien ostean, korrikalariak abiatu ziren, eta hirugarrenak izan ziren ipar martxalariak. Denek gozatu zuten lasterketaz eta giroaz, eta esperientzia bizi eta gero, errepikatzeko gogorik ez zitzaien falta

Txintxarri

Beroketak egin, Geltoki kaleko irteera puntura iritsi... patinatzaile, korrikalari eta ipar martxalarien aurpegietan urduritasuna nabari zen. Agurra dantzatu ostean, atera ziren lehenak. Gurpilak martxan jarri eta zitzu bizian atera ziren.

Korrikalariak minutu batzuk gehiago itxaron behar izan zituzten. Lehen ilaran faboritoetako batzuk ikusi ahal izan genituen: Unai Arroyo, Kamel Ziani edo Raul Gomez Margallo herritarra. Azkenik ipar martxako kideei irteera eman zieten.

Hamazazpi minutu behar izan zituzten lehen patinatzaileek ibilbideko 10 kilometroak egiteko. Lehia bizia izan zen azken Geltoki kaleko zuzengunean. Lehena Aitor Vacas izan zen; 17:36. Bigarren eta hirugarren sailkatuak segundo batera iritsi ziren. Nicolas Alonso eta Iazko Irabazlea, Ilazki Zalakain tolosarra, izan ziren, hurrenez huren.

Bi minutu beranduago iritsi ziren lehen emakumezkoak. Arantzazu Etxeberria izan zen lehena, 20:50eko denbora eginez. Ostean, Amale Mugica eta Nagore Montes.

Lasterketa nagusia

Hasieratik aurrea hartu zuen taldetxo batek. Bertan ziren



Krosako garaileek argazkia atera zuten kirol proba amaitu ostean. TXINTXARRI

faboritoak. Pixkanaka tartea irekitzen joan zen laukote bat: Unai Arroyo, Kamel Ziani, Martin Amilibia eta Raul Gomez Margallo. Oria aldean, Unai Arroyok erritmo aldaketa egin eta aurre hartu zuen. Taldea desgiten joan zen. Arroyo bakarrik iritsi zen Geltoki kaleko helmugara; 30:54. Atzetik, rollerren antzera, lehia izan zen azken metroetan bigarren postua eskuratzeko. Martin Amilibiak eraman zuen saria eta Kamel Ziani hirugarren izan zen. Raul Gomez Margallo herritarra atzean

geratu zen eta laugarren postua ere galdu zuen. Bosgarren igaro zuen helmuga.

Nesken mailan berriz, bikote bat aurreratu zen. Horien artean zegoen Nuria Rodriguez irabazlea eta Uxune Tena andoaindarra.

Rodriguezek erritmoa aldatu eta Tena atzera geratu zen. Honela Rodriguezek bakarrik egin zuen ibilbideko tarke handi bat. 38:34an geratu zuen erlojua, helmugan.

Ipar martxalariak ere tartekatuta ziren lasterkariekin. Lehena Cristina Borrás Nordic Walking Girona taldeko kidea izan zen; 38:04.



INTZA ELKARTEA

2020 zoriontsua
opa dizuegu!

Sagardotegi kalea, LASARTE-ORIA - Tel: 943 36 15 34



Euskal Jaiarekin girotu zuten Lasarte-Oria

Urriaren 19an egin zuten aurten Euskal Jaia, eta larunbat osoan eguraldiak kontrakoa iradoki arren, Okendo plazan egin ahal izan zituzten eguneko ekimen guztiak. Baserritar jantziak soinean, parte hartzeko hamaika aukera izan zituzten lasarteoritarrek

Txintxarri

Ekimenez eta euskal giroz beteriko eguna izan zen urriaren 19a, lehen ordutik, azkenekora. Zeruari begira, euri mehatxua agerikoa bazen ere, Okendo plazan mantendu zuten jaia antolatzaileek. Baita asmatu ere. Baserritarrez jantzitako herritarrek erakutsi zuten jaiaz gain, horrela ere blaitzeko prest zeudela.

Txistu eta danbolin doinuak esnatu zituen lasarteoritarren jai gogoak. Horiek leherrarazi zuten festa, eta hortik aurrera, Euskal Jaia ez zen eten.



Beñat Telleria, harrijasotze erakustadia egiten, Euskal Jaian. TXINTXARRI

Idoia Garzesen bi lan, sarituak, Zarautzen eta Ondarroan

Arrako izeneko neskatoaren kontakizuna Leire Urbeltz ilustratzailearen lanarekin osatu dute

Txintxarri

37. Lizardi Saria irabazi zuen Idoia Garzesen *Hari single bat* ipuin luzeak. Nor garen jakiteko, nondik gatozen jakitea ezinbestekoa dela defendatu du idazleak. Esker oneko agertu zen Zarauzko Udalarekin bere buruko ideiak argitaratzeko aukera emateagatik. Idoiaren Asteasuko amona Rufinari eskaini

zion ipuina. Gerrako umezurtza da, bere aita gerran hil baitzuten, eta ez dute orduz geroztik bere berririk lortzerik izan. Hortik abiatzen da, hain zuzen, kontakizuna, baina hori besterik ez da pasarte erreal bakarra. Hilabete berean, Ondarroako Agustin Zubikarai saria ere irabazi zuen, *Mendiko gaitza* nobelarekin.




TXINTXARRI



TRINKO

Epic Landus Racen, lehian

Epic Landus Swinrun Race bikotekako proba jokatu zen urriaren 6an, Uribarri-Ganboako urtegian. Bertan Trinkoko hiru bikote izan ziren lehian eta ibilbidean zehar, haien arteko konpliziateari neurria hartu zioten. Naroa Salsamendi eta Imanol Arteaga bikoteak proba luzea egin zuten. Iñigo eta Enaitz Ibarburu anaiek eta Asier Gorostegik eta Mikel Izagirrek ibilbide motza egin zuten. Helburua bete zuten guztiak, nahiz eta kirolarietako batzuk entrenamendu falta somatu.



TXINTXARRI

Atsobakar egoitzan, greba

Irailaren 19tik urriaren 18ra, 30 eguneko greba egin zuten Gipuzkoako zahar-egoitzetako langileek, ELA sindikatuak deituta. Hori dela-eta, Lasarte-Oriako Atsobakar zahar-egoitzako kideek %70-80ko gutxieneko zerbitzuak egin zituzten egun horietan. Lan baldintzak ez ezik, adinekoen egoitzetan dagoen ratioa hobetzea ere eskatzen dute langileek, kalera atera eta bertan deitutako mobilizazioen bidez. Egoerak ez du behin betiko irtenbiderik izan oraindik ere, eta langileek kalean protestatzen jarraitzen dute.

Andaluziako doinuekin bete zuten Okendo plazako karpa

Hamazazpigarrenez Aste Kultural ederra antolatu zuen Semblante Andaluz elkarteak. Giro ederrean igaro zuten

Txintxarri

"Olé"-ak, txaloak, zapateauak edota flamenko doinua barra-barra entzun zen Semblante Andaluz elkarteak antolatutako Aste Kulturalan. Okendo plazan jarritako karpan ospatu zuten

jaia, ostiral arratsaldetik igande iluntzera bitartean. Hegoaldeko "artez" bete, eta zer ikusi, dantzatu zein dastatu ugari izan zen bertan. Rocioko Amabirjina tarteko-edo, firin-farin ibili zen hego-haizeak erkidego hartakoagoa zirudien

giro ezin hobeak ekarri zuen, festara batzea erraztuz.

Ohitura denez, udal agintariei luntx bat eskainita eta elkarrekin topa eginda ekin zioten jarduera sortari. Horren ostean hasi ziren dantzaldiak, kantaldiak eta bestelako ekintzak.

Adin guztietarako egitaraua osatu zuten aurtengo Aste Kulturalerako, eta helduekin batera, etxeko txikienek ere gozatu ederra hartu zuten. Aurpegiak margotzeko tartea izan zuten, besteak beste.



Zambra dantza taldeko dantzariak, emanaldia eskaini zuten. TXINTXARRI

Kataluniarekin elkartasuna, herritarrek

Espainiako Auzitegi Gorenak 2017. urteko urriaren 1ean erreferenduma ahalbidetu zuten buruzagi sozial eta politiko subiranisten epaia eman zuen. "Demokraziaren aurkako eraso larria" dela irmo salatu zuten Lasarte-Oriako Gure Esku Dagoko kideek

Txintxarri

Kataluniako buruzagi independentisten aurkako epaia jakin ostean, asko izan ziren elkartasuna adierazi zutenak. Lasarteoriatarrek ere, epaia arbuiatzearekin batera, babesa adierazi zieten zigortuei. Okendo plazan, Kataluniari elkartasuna adierazteko, Gure Esku Dagok deituta, mobilizazio zaratsua egin zuten, *Erreferenduma ez da delitua, askatasuna* lelopean.

Era berean, herritar talde batek Kataluniarekiko Elkartasun Taldea sortu zuen urri hasieran, ikusarazteko lasarteoriatar ugari daudela arduratuta Katalunian gertatzen ari denarekin.



Lasarteoriatar talde bat Kataluniari babesa adierazteko mobilizazioan. TXINTXARRI



Amaia Cadarso ezkerrean eta Jurgi Olasagasti eskuinean, saria jasotzen. TXINTXARRI

Ostadarren inklusio taldeak jaso zuten Urrezko Kriskitina saria

ONCE elkartearen eskutik jaso dute Lasarte-Oriako Ostadar elkarteko ordezkariak oroigarria

Txintxarri

XVIII. Kriskitin lasterketak, kirol inklusiboaren aldeko lasterketa ez lehiakorrek, ehunka pertsona bildu zituen Donostiako Kursaal inguruan. Egun berezia zen Ostadar Inklusioa taldearentzat. Kirol inklusiboaren alde egin duten

lana sarituko zuen ONCEk. Lasterketaren ostean, Amaia Casado eta Jurgi Olasagastik, taldeko ordezkariak Urrezko Kriskitin saria jaso zuten Rafael Ledesma ONCEko Euskadiko delegaritzako lehendakariaren eskutik. Pozik agertu ziren jasotako aitortzarekin.

2020. urte goxo eta bero-bero bat opa dizuegu

Euskaraz orduro egunero astero hilabetero urtero orain eta gero!

TEAKUN



TXINTXARRI

Denboraldi ona egin du Aitor Mansok kartingean

Gaztela eta Leongo txapelketa hirugarren postuan amaitu du lasarteoriatarak

Txintxarri

Aurreikusitako helburuak bete zituen Aitor Mansok; Gaztela eta Leongo Txapelketa lehiatu zen, eta emaitzek eman zioten egindako lanari fruitua. Hasiera kaxkarra izan arren, hirugarren postuan amaitu zuen txapelketa herritarrek.

Abuztu aldean ekin zioten Gaztela eta Leongo Txapelketari, eta azaroan amaitu zuten. Lau lasterketa izan zituen guztira, eta horietatik hirutan lehenengo hiru postutan sailkatzea lortu zuen; batean bigarren postuan amaitu zuen, eta beste bietan, berriz, hirugarren. Guztira, hamabost pilotu lehiatu ziren.



A. MANSO



Mari Karmen Ormazabal eta Tomas Arrizabalaga testigua aldatzen. TXINTXARRI

Ttakun KEren testigua pasa dio Arrizabalagak Ormazabali

Ekainaz geroztik, Mari Karmen Ormazabal da Ttakun kultur elkarteko lehendakari berria

Txintxarri

Mari Karmen Ormazabalek hartu du Tomas Arrizabalagaren lekukoa: bera da Ttakun Kultur Elkarteko lehendakari berria, duela bost hilabetetik. Bilera batzuk egin zituzten aurretik, baina ekaineko Batzar Orokorrean gauzatu zuten ofizialki. Ormazabalek ongi ezagutzen du etxea, makina bat urte daramatzalako bertan, zeregin desberdinetan: langilea izan zen aurrena -1995ean hasi zen beharrean, begirale bezala; TXINTXARRI aldizkarian eta administrazioan ere aritu zen -eta zuzendaritzako kide gero -idazkari lanak egin ditu sei-zazpi urtez-.

Lehendakari denetik, ez du "aldaketa handirik" sumatu, urteak zeramatzalako zuzendaritzan. Besteak beste, orain tokatzen zaio elkartearen aurpegia izatea ekitaldi askotan.

Ttakun KEk lau lehendakari izan ditu 28 urtean: Sebastian Kerejeta, Mari Jose Eizmendi, Tomas Arrizabalaga eta Mari Karmen Ormazabal. Arrizabalagak duela zortzi urte hartu zuen ardura, 2011n, zuzendaritza taldean sartu eta berehala. Zortzi urte horietan "oso pozik eta gustura" aritu da Arrizabalaga, baina erreleboa nahi zuen jada. Hori izan da Ormazabalek erreleboa hartu izanaren arrazoietako bat: deskantsatzeko aukera ematea Arrizabalagari. Dena dela, argi utzi du epe jakin baterako hartu duela konpromisoa. Printzipioz, bi urterako, zuzendaritza berritu bitartean. Biek dute argi aldaketa horrek ezin duela izan bat-batekoa, progresiboa baizik.

Langileak ere gogoan dituzte, aitortu dute, Ttakunen dimentsioa daukan elkarte batek ezingo lukeela aurrera egin langileengatik ez balitz.

Musika eskolan protestak

Udal Musika Eskolako ikasleek lehengo urteko ikasturteko arazo berdinekin hasi zuten ikasturte berria. Musika modalitate batzuetako irakasleak urrian hasi ziren lanean, baina tronpetako ikasleek, eskolak jaso ezinik jarraitzen zuten azaroan, irakaslerik ez zegoelako. Egoerak "amorrua, motibazio falta eta ezinezona" sortu zuen, eta egoeraren jakitun egin zituzten gainerako lasarteoriatarak, protesten bidez.



TXINTXARRI

Hauteskundeak, berriro

Diputatuen Kongresurako eta Senaturako hauteskunde orokorrak egin ziren, beste behin, azaroan. Apirilean deitu zituzten lehenengoz bozkak, baina ez zuten gobernua eratzerik lortu, eta errepikatu egin zituzten. 2015. urtetik laugarren hauteskundeak izan ziren asteburu horretakoak. Ikusteko dago oraingoan gobernua sortzeko gai izango diren edo ez.

Azterketarako laginak hartzen


Zubietako erraustegiaren isurkinen ikerketa proiektuan parte hartu zuten bi herritarrek: esne laginak eman zituzten, ToxicWatch fundazioko kideek laborategian iker ditzaten. Herriko edoskitze taldearekin harremanetan jarri ziren, ekimenaren berri emateko antolatu zuten aurkezpen bat, eta horrela animatu ziren Lorena Ciria eta Yune Moreta herritarrek egitasmoan parte hartzera.



TXINTXARRI

Arimen gaua, Zabaletan

Gau Beltza edo Arimen Gaua izenez ezagutzen den euskal ospakizuna berreskuratu zuten Ttakun Kultur Elkarteak eta Zabaleta Auzolanek. Beste era batera esanda, Arimen I. Biltzarra ospatu zen Zabaleta auzoan. Izaki beldurgarri ugari elkartu ziren Antonio Blas plazan, neguari harrera egiteko; iluntasunean eta iluntasunarekin jolastu zuten.



TXINTXARRI



Jaialdi koloretsua antolatu zuen Jalgune elkarteak beste urtebetez. TXINTXARRI

Hamahirugarrenez, aurreiritziak uxatuz eta giro ezin hobean

Jalgune elkarteko lagunek, jaialdi ederraz gozarazi diete, aurten ere, lasarteoriarrei. Lepo bete zuten kultur etxea

Txintxarri

Sineskeriak eta ustezko mugak alde batera utzita, *Zuekin Ez Dok Amairu* jaialdia ospatu zuen Jalgune elkarteak; musika eta umore onez bete zuen Manuel Lekuona kultur etxea.

Gortinak zabaldu eta Lehoi Erregea, Merida printzesa, kutsu andaluzeko Buzz Lightyear, edota Sebastian karramarroa ondoan zuen Ariel sirenatxoia agertu ziren globoekin apaindutako oholtza gainean. Disneyko pertsonaia horiek eta beste batzuek dantza egin zuten Up filmeko etxe hegariaren irudi aurrean. Arratsaldeko lehen dantza besterik ez zen izan, motorrak berotzen hasteko.

Aurkezpen bideo batean, hamahiru arteko kontaketa egin zuten hainbat lasarteoriar ezagunek, besteak beste, Iraia Iparragirre, Asier Odriozola, Ane eta Axier Arteaga pilotaria edota

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak. Ondoren, "Eta gu?" "Eta zu?" "Eta ni?" galdetu zuten beste asko ere agertu ziren pantailan. "Zuekin, 'ez dok amairu' jaiaren leloa heldu arte. Babesa ez zieten bideoan bakarrik erakutsi, oholtza gainean herriko zenbait talde izan zituzten lagun XIII. ospakizunean: Sorgin Jaiak, Gazte Kluba, Zabaleta Auzolan auzo elkarte eta Semblante Andaluz.

Aretoa txiki gelditu zen eta batzuek alboko pasilloetako baten zoruan eserita ikusi zuten jaiaren gehiena.

Zuzenean ikusteko aukerarik izan ez zutenentzat, ordea, bideo emanaldia eskaini zuten abenduaren 3an; aniztasun funtzionalaren egunean TXINTXARRI-K grabatu zuen emanaldia ikusteaz gain, Beatriz Egizabalen burutazioekin gozatu zuten bertaratutako herritarrek.

Kulturarteko zapore artean

Bazkari multikulturala antolatu zuen Sasoetako Burunzpe guraso elkarteak, ikastetxeko gimnasioan. Eguerdiko 13:00ean, plater dastaketa egin zuten, eta horren ostean, 15:30ean, jokoak. 16:30ean, karaokean aritu zireen kantari. Zazpigarren aldiz antolatu zuten aurten, eta guztira, 21 herrialdek partu hartu zuten ekimenean.



TXINTXARRI

Ekintza ezberdinak indarkeria matxistaren aurka protestatzeko

Elkarretaratzea, ikus-entzunezkoak, lehiaketa izan dira, besteak beste, Azaroaren 25eko egitarauaren parte

Txintxarri

Aurtengo Azaroaren 25rako, Indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeekin lan egiten duen Alaitz Zugasti abokatu donostiarrak elkarrizketatu zuen TXINTXARRI-K. Zugastiren esku jartzen diren emakumeen kasuak, oinarritzko zerbitzu sozialetatik bideratutakoak izaten dira beti. Hau da, ez da beharrezkoa salaketarik jartzea aholkularitza jasotzeko. Laguntza juridikoarekin batera, aspektu psikologikoan ere babestu



Oriarteko ikaslen ekintza bat. ORIARTE BHI

daiteke emakumea. Urgentziazkoak diren kasuetan, aldiz, Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzura jo dezakete.

Azaroak 25eko ekintzak

Oriarte institutuan hainbat ekintza egin dituzte aste osoan zehar.

Horrekin batera, *El Encaje Roto* antzezlanaren taularatu zuen Makelur elkarteak, eta Bea Egizabalek eta Ane Labakak, berriz, *Erradikalak* ginen ikuskizuna eskaini zuten.

Aurten ere, Beldur Barik lehiaketak ez du hutsik egin, eta hainbat herritarrek parte hartu dute horretan. Horien artean, aurkeztutako lan onenek saria jaso zuten.

Azaroaren 25ean, urtero gisa, elkarretaratzea egin zuten Okendo plazan.



TXINTXARRI

Fernandez Iradik ebazpenaren zain jarraitzen du

Ibon Fernandez Iradiren epaiketaren ebazpena atzeratu egin dute, eta urtarrila aldean jakin ahalko du bere auziaren berri. Zigorrak Ezartzeko Frantziako Auzitegiko epaileak azaroan egin zuen zigorra etetearen alde, baina helegitea jarri zuen Fiskaltzak, erabaki horren berri izan eta segituan. Parisko Dei Auzitegiarena izango du azken hitza. 2013an diagnostikatu zioten esklerosi anizkoitza Fernandez Iradiri; orduan hasi zuen bidea epaitegietan, oraindik amaitu ez dena. Bera eta beste hoge euskal presok dauzkate eritasun larriak.

Behobiatik, Donostiara

Lasarte-Oriako 180 herritarrek izena emana bazuten ere, 151 korrikalarik igaro zuten Bulebarreko helmuga. Guztien artean, Gorka Gil eta Maite Salazar izan ziren azkarrenak. Lehenak 1.08.57ko denbora egin zuen; Salazarrek, berriz, 1.27.46 behar izan zuen helmugara iristeko. Gilek "oso pozik" amaitu zuen, eta Salazarrek ere "sentsazio onekin".



ISSAC FARRE RICO

X. Euskararen Maratoia eta Euskaraldia, 2020an

'Bero-Bero' dator 2020. urtea. Euskararen Maratoiaren hamargarren edizioa ospatuko da urriaren 17an eta 18an. Lantaldea ari da dagoeneko lanean, eta datozen hilabeteetan emango dituzte datu gehiago. Euskaraldiak azaroaren 20tik abenduaren 4ra iraungo du

Txintxarri

Euskara hauspotzen jarraitzeko urte indartsua izango da 2020a Lasarte-Orian. Herritarrentzat horren kuttuna den Euskararen Maratoia atzeraka kontaketan sartzeaz da: urriaren 17an eta 18an ospatuko da hamargarrena, eta, honezkerok, Ttakun Kultur Elkarteak, Lasarte-Oriako Udala eta maratoiko lantaldea hasi dira buruari eragiten. Besteak beste, hasi dira zehazten nortzuk osatuko duten zortzikotea. Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, eman zuten egitasmoen berri, Antonio Mercero aretoan.

Maratoiarekin batera, Euskaraldiaren bigarren edizioak ere hartuko du Lasarte-Oria datorren urtean. Hamabost eguneko egitasmoa izango da; azaroaren 20an hasi eta abenduaren 4an bukatuko da. Zenbait berrikuntza izango ditu bigarren edizioak; ahobizi eta belarriprest-ez gain, *ariguneak* sortuko dira, hala erabakitzen duten entitate eta elkarteetan. Euskaraz "lasai" hitz egiteko guneak izango dira horiek.

Bi egitasmoak aurkeztearekin batera, hainbat datu eskaini zituzten. Besteak beste, 2018an egindako Euskaraldiak emandakoa. Soziolinguistika



'LasarteTop' jardunaldian aurkeztu zituzten bi egitasmoak. TXINTXARRI

Klusterrak emandako datuen arabera, ekimenean parte hartu zuten 3.000 lasarteoriarretatik %62 izan ziren *ahobizi*, eta %38 *belarriprest*. Hamarretik sei emakumezkoak izan ziren; %1a, ez binarioa; eta, gainontzeko guztiak, gizonezkoak.

Hamargarrena, 2020an

Herritar askok euskaldun izateko eta euskaraz bizitzeko duten nahia sinbolizatzen duen jai erraldoi bat da Euskararen Maratoia. 1986an antolatuta zuten

aurreneko edizioa; orduz geroztik, lau urtean behin egiten dute. 40 ordu irauten duen ekitaldia da, apenas etenik ez duena; bost minutu baino gehiagoz ezin du isilik egon Okendo plazako oholztan egon ohi den mikrofonoak.

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Batzordea eta Ttakun Kultur Elkarteak dira antolatzaile ofizialak. Hala ere, lasarteoriarrek egiten dute maratoia; helburua da ahalik eta herritar gehienek parte hartzea; euskararen inguruan biltzea.



Jesus Zaballos, erdian, Agustin Valdivia eta Lourdes Acevedo alboetan dituela. TXINTXARRI

"Arrazoi pertsonalengatik", dimititu egin zuen alkateak

Alkate kargua eta bizitza publikoa utziko zituela iragarri zuen Jesus Zaballos sozialistak, udaletxeko pleno aretoan

Txintxarri

Jesus Zaballos alkateak (PSE-EE) dimisioa eman zuen, "arrazoi pertsonalengatik". Udaletxeko pleno aretoan egin zuen urgentziatzeko agerraldia, Agustin Valdivia eta Lourdes Acevedo alderdikideak alboetan zituela. Alkate zein zinegotzi karguei eta bizitza publikoari uko egingo zuela iragarri zuen.

Hamahiru urtez aritu da Zaballos udaletxean lanean. Zinegotzi gisa horietako batzuk, eta alkate karguan besteak; guztira, zazpi. Ana Urchueguiak dimisioa eman eta gero, 2010ean,

hilabete batzuk egin zituen alkate gisa. 2011ko hauteskundeetan PSE-EEren zerrendaburu gisa aurkeztu zen, baina ez zuen alkatetza lortu. Bai, ordea, lau urte beranduago; 2019ko bozetan ere berea izan zen alderdi sozialistaren zerrendako lehenengo izena. Berak jaso zuen aginte-makila ekainean.

Dimisioa aurkeztu eta egun batzuetara egin zen ofizial bere kargu-uztea, abenduaren 16ko ezohiko udalbatzarrean, hain justu. Agustin Valdivia alderdikideak hartu du orain ardura hori.

Araeta eta Arkupe garaile

Pintxo Ibilbidearen VII. edizioa egin zuen Aterpea elkarteak. Sergio Humada sukaldariak eman zuen Sari Profesionala; Araeta jatetxeak irabazi zuen. Sari Herrikoia, berriz, Arkupe tabernarentzat izan zen.

Horrez gain, aurtan aurrenekoak, erakusleho lehiaketa ere antolatu zuen Aterpeak. Alba Modak irabazi zuen Sari Herrikoia; Sari Profesionala, aldiz, Imagine jantzi-dendak.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Eslalom Txapelketa Michelinen

Ostadar Inklusioak Eslalom Txapelketaren II. edizioa egin zuen Michelingo pilotalekuan. Dozenaka kirolarik parte hartu zuten: hainbat oztopoz osaturiko zirkuituak burutu behar izan zituzten, epaileen begiradapean. Hiru urte bete ditu aurtan Ostadar SKTren sail horrek; urri erdialdean Kriskitin saria jaso zuten, kirol egokituaren alde egiten duten lanagatik.



Jantzi tradizionalen uzta dotorea

Jantzi tradizionalen ikastaroa egin dute hainbat herritarrek aurten ere. Ione Artola jostunaren gidaritzapean, ator dotoreak ondu dituzte guztiek. "Oso txukun aritu dira ikasleak", nabarmendu zuen Artolak.

Bestalde, Ane Albisu aditua Jalgi Kafe Antzokian izan zen abenduaren 13an, euskal jantzi tradizionalak nola jantzi behar diren azaltzen.



TXINTXARRI

Musika eskolako kontzertua

Udal Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskaini dute asteon, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan. Lepo bete dute aretoa gazteen guraso, senide eta lagunek. Bereziki gustatu zaie hasiera, eskolako ikasle gazte batzuk oholtzara atera eta Eguberrietako zenbait kanta abesten hasi direnean. Instrumentuen txanda izan da gero: zeharkako flauta, gitarra, e.a.



TXINTXARRI

Urteko kirolariei aitortza

Aitor Manso karting pilotua eta Ainhoa Martin igerilaria izan dira 2019ko kirolari nabarmenenak. V. Kirol Festa egin zuen Lasarte-Oriako Udalak, sariak eman eta bi gazteei merezitako aitortza egiteko. Iraia Iparragirre, Raul Gomez eta Pili Bodegas izan ziren 2018ko sarituak.

Kataluniari buruz solasean Martxelo Otamendirekin

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago dinamika 'Berria' egunkariko zuzendaria gonbidatu zuen Mercero aretora

Txintxarri

Kataluniako prozesua eta egoera nola ikusten duen azaldu zuen *Berria* egunkariko zuzendari Martxelo Otamendik abenduaren 14an, Antonio Mercero aretoan, Lasarte-Oriako Gure Esku Dago

dinamika gonbidatuta. Mainer Galarri kazetariak gidatu zuen *Berriketan* saio hori.

Egiari zor, kazetariak ez zuen lan gehiegirik egin izan behar, zenbait galdera aipatu gabe utzita ere luze eta zabal aritu zelako

Otamendi; noizean behin bidera ekarri eta aipatu gabe gera ezin zitezkeen ertzetara hurbildu zuen.

Kataluniako bideaz gain, Euskal Herrirako baliagarri izan zitezkeen irakaspen ere hitz egin zuen *Berria*-ko zuzendariak. Autogobernuari buruz, adibidez, esan zuen batzordeak legebiltzarrak lortzen ez duen adostasuna erdiets dezakeela pentsatzeak zentzurik ez duela, eta ez duela uste aurretiazko galdeketerako baimenik emango duenik Espainiako gobernuak.



Herritar ugari gerturatu ziren Gure Esku Dagok antolatutako ekitaldira. TXINTXARRI

Ane Labaka, finalista Gipuzkoako Txapelketan

Maiatzean ekin zion Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketari Ane Labaka herritarrek. Fasez fase ederki aritu ostean, final handira sailkatu zen. Abenduaren 14an aritu zen kantuan, Donostiako Illunben. Seigarren postua lortu zuen Earra bertso eskolako kideak

Txintxarri

Lasarteoriatar bat izan da Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketako finalistetako bat: Earra bertso eskolako kide Ane Labaka. Maiatzean ekin zion txapelketari. "Txapelketa nahiko gorabeheratsua" egin zuela aipatu zion TXINTXARRI aldizkariari, Gabonetako zenbaki berezirako egindako elkarrizketan. "Justu pasa nuen lehenengo fasea; gero, hurrengoan, puntuazio handiena; berriz ere atzera ondoren... Momentu askotan arriskua ikusi nuen hurrengo fasera ez sailkatzeko", aipatu zuen.

Ez zen hori gertatu, ordea, eta Illunben aritu zen, 6.000 pertsonaren aurrean. Hasi aurretik gainezka egin zioten emozioek, baina gustura da egindako lanarekin. Batez ere, bukaerako ariketekin. "Behetik gora egin nuela uste dut. Oso gustura geratu nintzen hamarreko txikiarekin eta bakarkakoarekin".



Ane Labaka bertsolaria. TXINTXARRI

Sailkapen orokorrean seigarren geratu zen lasarteoriatarra. Txapelketaren balorazio orokor bat egin du: "Osotasun batean hartzen dut; gustura nago finalarekin eta txapelketarekin".

Beñat Gaztelumendik jantzi zuen txapela Illunben, duela lau urte egin bezala. Agin Labururekin aritu zen buruz burukoan. Ezusteko txiki bat eraman zuen Labakak. "Pena hartu nuen Alaia Martinengatik. Pentsatzen nuen Beñat eta biak izango zirela".

Genero ikuspuntutik ere aztertu du finala. "Egia da lau eta lau geundela Illunben, baina hori izebergaren punta da; sailkapen fasean, udaberrian, 84tik hamazazpi bakarrik ginen emakumeak". Uste du gauza asko aldatu behar direla, kuantitatiboki zein kualitatiboki. "Arriskua dago jendeak esateko 'ba lau eta lau eta listo', baina atzean gauza askoz gehiago daude".

Txapelketako zurruntasunetik at kantatzeko eta disfrutatze gogoia dauka Labakak orain. "Ariketa konkretu horietatik kanpo, askeago gabilta; hori egin nahi dut orain".



Agustin Valdivia, herriko alkate izendatu berria. TXINTXARRI

Agustin Valdivia izendatu zuen alkate udal korporazioak

Jesus Zaballos alderdikidearen lekukoa hartu zuen PSE-EEko kideak, abenduaren 20an egindako ezohiko udalbatzarrean

Txintxarri

Jesus Zaballosek "arrazoi pertsonalengatik" dimisioa aurkeztu eta astebetara, Agustin Valdivia alderdikideak hartu zuen bere lekua, abenduaren 20an egindako ezohiko saioan. Hirigintza eta Lanak batzordeko burua izan zen ordura arte. Alkate bezala egin zuen lehen agerraldian, korporazioa osatzen duten alderdiei eskua luzatu zien, eta akordiotara iristeko gai izatea eskatu.

Eskerrak eman zizkien familiari, alderdikideei eta

lagunei, hunkituta. "Ez nuen imajinatuko herriaren alde zinegotzi eta alkate gisa lan egin ahalko nuenik".

Legaldiko "erronkak"

Datozen lau urteetara begira, "erronka" asko ditu udalak, Valdiviak adierazi zuenez. Horietako bat da HAPO Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra egitea, alkatearen hitzetan. Aipatu zituen baita ere genero berdintasuna, gardentasunean urratsak ematea eta kiroldegi berriaren proiektua, besteak beste.

San Tomas ospatzen

Ttakun Kultur Elkarteak antolatuta, San Tomas eguna ospatu zuten herritarrek Oriarte Landaberrin. Xumela korua, Ttirriki Ttarraka musika eskola eta Plazadantza egitasmoko kideek girotu zuten arratsaldea. Taloak, gaztainak eta sagardoa ere sabeleratu zituzten Oriartera joan zirenek. Telleri baserriatik ekarri zuten txerria, urtero bezala.



TXINTXARRI

Olentzero eta Mari Domingi, herrian

Opariak eta ilusioa banatu dituzte Lasarte-Orian, euren lagunekin batera: Xixuko, Porrotx eta Mariteilatukok ere parte hartu dute kalejiran, hainbat pertsonaia mitologikorekin batera. Okendo plazara joan dira gero, herritarrei kasu egin eta gaztetxoek eskutitzak jasotzera



Txintxarri

Egun oso berezia bizi izan zuten lasarteoritarrek abenduaren 24an. Urte osoa zain egon eta gero, menditik jaitsi ziren Mari Domingi eta Olentzero, lagunekin batera: Xixuko, Mariteilatuko eta Porrotx izan zituzten lagun kalejiran, eta baita hainbat pertsonaia mitologiko ere.

Gaztetxoek gutunak jaso zituen Xixuko ahateak eguerdian, Okendon. Arratsaldean, kalejiran atera ziren lehen aipatu pertsonaia horiek guztiak, herrian zehar. Okendora iritsi, eta plazan zain zeuzkaten herritarrekin aritu ziren kantuan eta dantzan. Gero, eskutitzak jaso zituzten.



Abenduaren 24an jaitsi ziren menditik Olentzero eta Mari Domingi. Kalejira egin zuten arratsaldean lagunekin batera; gero, eskutitzak jaso eta opariak banatu. TXINTXARRI

LUIS CAR

autobusak



2020 zoriontsua opa dizuegu!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

54€ urtean

Euskara eta kultura bidelagun!

zuk
54€
urtean
ordaindu

guk
Euskara eta
kultura
sustatuko
dugu

Errenta
aitorpenean
%20ko
kenkaria
izango duzu

**ABENDUAREN 31a baino
lehen bazkide egiten
bazara otar baten
zozketan sartuko zara!**



Datuak bete eta utzi Ttakuneko bulegoko postontzian edo Jalgi tabernan
On-line egiteko: www.txintxarri.eus/bazkidetu

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ Jaiotze data: _____


Helbidea: _____ Herria: _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura



Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu



Ttakun Kultur Elkartek urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez